

# ARGIA



## Presoa emakumea denean

22-26. orriak



**Silicon Valleytik mundura zabaldu nahi duten telelana**

10 | NET HURBIL



**Aldude goibeldu zuen hegazkin istripua AEBetara bidean**

28 | OROIMENA



**"Maltzagak ez dio ezer esaten jendeari jada"**

32 | ANDONI OLARIAGA





**Hiru kolore aukeran:**  
grisa, arrosa eta berdea.

**Modelo estua eta zabala aukeran**  
kolore guztietan.

**%100 kotoi organikoa.**

# Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

**Erosteako:** [argia.eus/azoka](http://argia.eus/azoka) 943 37 15 45

## Kamiseta berriak!

**Agroekologia mugimendua**  
eta  **ARGIA** elkarlanean

**19,5 €**

Kamiseta erosita, 2 €-ko ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari eta beste hainbestekoa ARGIAri.

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO IRUDIA:  
JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY

## Iritziak

- 17 | ASIER BLAS
- 18 | BEA SALABERRI
- 19 | NEREA IBARZABAL
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | J.I. ANSORENA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 38 | DENBORAREN MAKINA
- 39 | ARGIA KOMUNITATEA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 54 | ARGI-KONTRA: CARLOS MARQUÉS-MACET
- 58 | BERANDUEGI



### 10 | NET HURBIL

Telelana izango da konfinamenduetan langile askok hartuko duten bidea. Baina zer ondorio ekarriko ditu gure gizartean, COVID-19 ostean ere berau orokortzen bada? Jenofa Berhokoirigoinak azaldu ditu, Silicon Valleyko lan baldintzak adibide hartuta. Izan ere, plataforma digital boteretsuenak dauden badien gauzaturik dute jada, mundura zabaldur nahi luketen antolaketa.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

### 12 | PERTSONAIA | NOEMI VIANA "Mundu ero honetan dantza beharrezkoa da"

Miren Artetxe Sarasola

### 22 | POLITIKA Kartzela, zaintza eta emakumea\* Estitxu Eizagirre Kerejeta

### 27 | GIZARTEA "Gau beltzak maite ditugunen arimak erakartzea du helburu" Mikel Garcia Idiakez

### 24 | NAZIOARTEA Amerikar ametsa amesgaizto bilakatu zenekoa Jenofa Berhokoirigoin

### 32 | POLITIKA | ANDONI OLARIAGA "Independentziatik gertuago gaude, baina oraindik urrun"

Zigor Oleaga

### 36 | NAZIOARTEA "Emakume baserritarrek erabakitzeke eskubidea dutenean haien autoestimua hobetu egiten da" Esti Redondo

### 42 | KULTURA | IDOIA HERNANDEZ "Musikari izateko erabaki politikoa hartzeak zartatu egiten zaitu" Gorka Erostarbe

### 46 | KULTURA | OSKARBI Iluntasunaren aurrean, kantuaren arnasa Urko Apaolaza Avila

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea  
**Lehendakaria**  
Bego Zuza  
**Erredakzioa**  
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Jone Markuleta, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga  
**Diseinua**  
Maitane Gartzandia  
**Argazkilaria**  
Dani Blanco  
**Produktzioa eta inprimaketa**  
Adnta S.A.L.  
**Administrazioa:**  
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte  
**Salmenta**  
Idoia Arregi, Karlos Olosola, Olatz Korta  
**Idazkaritza**  
Aloña Soraluze, Bego Zuza  
**Web garapena**  
Asier Iturralde  
**Informatika**  
Iametzta Interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012  
ISSN  
0213-909X  
**Batzorde parekidea**  
72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

**Posta elektronikoak**  
komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

**Telefonoa**  
943371545

**Gipuzkoa**  
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria  
**Lapurdia, Nafarroa Beherea eta Zuberoa**  
Xalbardin baita. 64122 Urruña  
**Nafarroa**  
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina  
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

**antza**  
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

**iametzta**  
interaktiboa

**ADUR** software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA





# Beldurgarria

Beldurgarria ez da Gau Beltzaren janzkera, Euskal Herriko zahar etxeetan gertatzen ari dena baizik. Maite duzuna zoologikoan gatibu balego bezala ikustea. "Adineko pertsonen eskubideak ez dira adinarekin iraungitzen", adierazi dute asteburuan Hego Euskal Herriko 70 herri baino gehiagotan egindako manifestazioetan. Pandemia garaian, egoitzak isolamendu zentro bihurtu direla salatu dute. Irudian, biloba mozarrotuta Iruñeko erresidentzia batean konfinatuta dagoen amona bisitatzen. Distantzia gordeta eta hesi batek bereizita.







**EUSKARABILDUA  
JARDUNALDIAK EGIN  
DITUZTE, "DATUEN IZURRIA"  
IZENBURUEAN**



@GEMMAGALDON: DATUEN KONTROLA GALDU DUGU, ANAIA HANDI KUTRE ETA ARRUNT HORI SALATZEN HASI BEHAR DUGU. ZER EGITEN DUTE TEKNOLOGIEK GURE BIZITZAN? HORI DA FALTA DEN EZTABAIDA

@MJIRPE



@JAVISAMO:  
"ALGORITMOETAN  
ERRUZ SORTZEN DIREN  
DISKRIMINAZIOEN GAIKIN  
GEROZ ETA KONTZIENTZIA  
HANDIAGOA DAGO.  
DESIGN JUSTICE GISAKO  
METODOLOGIAK GARATUZ,  
BEHETIK GORAKO DISEINU  
KOLABORATIBOAK  
SORTZEKO AUKERA DAGO"

@Euskarabildua




@CIEN\_MARGARITAS:  
"ZAINDU BEHAR DUGUNA  
EZ DA NORBERAREN  
PRIBATUTASUNA, JUSTIZIA  
ETA BERDINTASUN  
SOZIALA BAIZIK"

@Euskarabildua



OSO GARRANTZITSUA DA  
AIPATU DENA HEZKUNTZAN  
ERABILTZEN DIREN  
BALIABIDE TEKNOLOGIKOEN  
INGURUAN. EZ, TEKNOLOGIA  
EZ DA NEUTROA, INONDIK  
ERE. HONEK GOGOETA  
SAKONA ETA ESTRATEGIA  
BATERATUA ESKATZEN DU

@euskaljakintza



# Datu okerragoak eta neurri zorrotzagoak

 ARGIA

**F**rantziako Gobernuako presidente Emmanuel Macronek iragarri zuen konfinamendua Metropolitarrantziarentzat, tartean Ipar Euskal Herriko herritarrentzat: abenduaren 1a arte luzatuko da eta indarrean izango diren neurri erreparatuz gero, ezin esan martxoko itxialdia baino gozagoa izango denik. Lantokiak, eskolak eta parkeak zabalik egongo dira, baina herritarrek martxoan nozitu zituzten baldintza zorrotzetan egon beharko dute etxean, kanpora irteteko ordubete motzeko mugarekin eta edozein mugimendu egiteko agiria soinean eramateko obligazioz.

Gehienez ere 60 minutuz egon daiteke herritarra bere etxetik kanpo. Ariketa fisikoa egiteko, paseatzeko... baina beti ere kilometro bateko inguruan. Itxita daude: ostatuak, jatetxeak, premiazkoenak ez diren saltokiak, kiroldegia, hitzaldi aretoak, antzokiak, zineak, erakusketak, feria... Oinarritzako produktuen saltokiak zabalik daude baina zerrenda horretan sartzen ez direnak (liburudenda, ileapaindegia, jantxidenda...) itxita. Hauetatik salmenta Internetez egin dezaketenen libre dute beren zerbitzuak eskaintzea. Irakaskuntza sisteman, goi mailako ikasketak Internet bidez egingo dira. Martxoan ez bezala, zerbitzu publikoek ateak zabalik dituzte.

## EAE, ITXITA

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, EAEn sartzea eta Autonomia Erkidegotik ateratzea debekatu du, salbuespen batzuekin. Osasunarekin lotutako arrazoiak eta lanarekin lotutakoak lirakeke sartu-irtenak baimenduko lituzketenak, nagusiki. Udalerrietatik irtetea ere oso mugatuta geratu da. Autonomia Erkidegora sartzeko eta irteteko mugei bezalako salbuespenak aplikatuko zaizkie udalerrirei ere: osasuna, lana eta, elkarren ondoan dauden herrien kasuan, jarduera sozioekonomikoak tarteko, mugimenduak baimendu ahal izango dira. Espazio publiko zein pribatuetan gehienez sei lagun biltzeko daitezke eta gauez kalean ibiltzea ere debekatuta dago 23:00etatik 6:00etara.

## NAFARROAN, ETXETAKOAK BAINO EZ

Nafarroan, aurretik ezarriak zituzten neurri gehitu diete gauean ateratzeko debekua eta eremu pribatuko bilkuretan etxekoak soilik elkartu ahal izatea. Salbuetsita daude bakarrik bizi diren pertsonak, menpekoak direnak, adin txikiak eta etxe banatan bizi diren bikoteak.



## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

## Espainol



ARITZ GALARRAGA

**H**aurtzaroaz gauza batzuk gogoratzen ditut –asko-asko ere ez, egia esan, eta damu izan naiz batzuetan; beste batzuetan ez, eta pentsatu dut haurtzaroa asmatzeko aukera neukakeela hartara-. Baina gogoratzen dudan gauzen artean dago bat: etengabe elkar iraintzen genuela, irainak ahotik ahora ibiltzen zirela, normalizatuta zegoela irainen bidez hitz egitea –eta, bide batez, ze jarrera matxitoa-. Ez ditugu hemen berrituko haur garaiko loreak, belarrientzako poesia zirenak. Baina denborarekin konturatu naiz bazegoela bat bereziki iraingarria zena, irain mingarrien zerrendan lehen postuetan zegoena: “Espainol”. Ezen, baiki, “espainol” izenlaguna irain gisa erabiltzen genuen, eta ez zen suabeena: “*Calla, español*”, “*déjame en paz, español*” edo “*vete a tu casa, español*”, lasai asko esaten genituen, noski espainol ederrean.

Nik, aldiz, urkulluz eta satisfazioz esan dezaket euskara, gaztelania, katalana eta galegoa ezagutzen ditudala, are bizitza proiektu gisa ulertzen dudala lau hizkuntza horiek jakin, kultibatu, erabiltzea, eta beraz espainol erabatekoa naizela. Gabriel Arestik Tomas Meaberi eskainitako poemari kasu egiten badiogu, behintzat: “*Cierra los ojos muy suave, / Meabe, / pestaña contra pestaña. / Sólo es español quien sabe, / Meabe, / las cuatro lenguas de España*”. Gaur egun espainol deituko balidate, beraz, eta haurtzaroan ez bezala, segur aski, ez nuke ezer berezirik sentituko. Vasco modu iraingarri batean deituko balidate bezala, bide batez. Bost axola. Ez didate halako gaiek loa galarazten. Gainera, barre egingo duzue –barre egiteko esango baitut-, baina bokazioz europeista naiz.

Zentzu horretan, Portoko alkateak berriki Espainia eta Portugal batzearen ideia jarri du berriz mahai gainean, ideia bikaina, inondik inora. Bien bitartean, iruditzen zait itsusia dela elkar iraintzen ibiltzea, are helduaroa erdietsi duen gizartetzat badugu geure burua. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



ADUR

## “KULTURA SAILBURU, EZ DUGU ULERTZEN ZER PROPOSATZEN DUZUN”

### TEKNIKARIOK, IKUSKIZUNETAKO TEKNIKARIEN SINDIKATUA

Bingen Zupiria Eusko Jaurilaritzako bozeramaile eta Kultura sailburuak adierazi zuen ez duela uste kulturak erantzun berezirik behar duenik krisi honen aurrean. Kulturgintzako langile askoren artean hautsak harrotu dituzte hitzok. “Elkarriketa horretan gure sektorea mespretxatzen du, gu desberdinak sentitzen garela esanez, gure diru ekarpena ukiezina dela ziurtatuz eta gizarteari sektorearen ikuspegi oso distorsionatua emanez, adibidez, aretoak alkohol-kontsumoarekin lotuz”. 2020/10/28





# Pilotarien jokaldi ona



JUAN MARI ARREGI

**P**ilota munduko lehen greba oso eraginkorra izan da: laburra, baina aldi berean epe luzerako balioko duten akordioekin. Gainera, eredu bat izan liteke laneko gatazkak konpontzeko grebara jotzen duten beste askorentzat.

Greba beti da eraginkorra, nahiz eta aldarrikapen guztiak ez lortu, berehalakoan behintzat. Horrelakoekin balio gabetzen dira enpresa, erakunde eta gobernuetatik eta baita zenbait langile sektoretatik grebaren indarrari uko egiten dioten argudioak, “indarrarekin ez da ezer lortzen” diotenak. Hemeretzi pilotariak erakutsi digute hori ez dela horrela.

Pilotariak greba hasi eta hamabi egun baino ez dituzte egin borrokan. Akordio sektoriala lortu dute, eta Bilbo-ko sustatzailearen eskulariak babesteaz gain, pilota profesional osoari egonkortasuna emango dio horrek, gaur egungo une zailetan. Kontratazioa, gutxieneko soldata, dietak, entrenamenduak eta abar izan dira prekaritate-arazoen eta inposizioan eta aldebakartasunean oinarritutako lan-harremanen aurrean negoziatu eta adostu behar izan dutena.

Protagonistak gazteak izanagatik, greba garrantzitsu honek pilota munduaren etorkizuna bermatzeko itxaropen mezua ere badakar. Grebalarien bozeramaileak adierazi dutenez, akordio egokia lortu dute bi aldeentzat, eta, gainera, “akordio ona lortu dugu etorkizuneko pilotarientzat ere”. Jokaldi ona egin dute Baikoko pilotari grebalariek.

Jokaldi horrek, gainera, pilotaren munduarentzat ez ezik, beste sektore batzuentzat ere balio lezake, langileek grebaren indarra erabili beharko baitute sarritan, are gehiago halako egoera eta gatazkak etengabe ugaritzen ari diren krisi garaiotan. ●



## Errautsak

URKO APAOLAZA AVILA


**1** 936ko urriaren 30ean Hernaniko alkate frankista Julian Madinak bando harrigarria publikatu zuen: “Jakinarazten dut, aurtan debekatuta dagoela hilerria joatea Santu Guztien eta Arimen egunean”. Toki hura Gipuzkoako fusilatze gunen nagusi bilakatu zen, eta hainbestekoa zen odol festa –200 lagun inguru hil zituzten aste gutxiren buruan–, ezen nahiago izan zutela ateak itxi, euren krimenak agerian gera ez zitezen. Geroztik, urte hura kenduta, beti egon izan da zabalik kanposantua azaroaren 1ean. Aurtan ere hala izan da, baina osasun larrialdiaren ondorioz baldintza oso zorrotzak ezarri dituzte, eta askok ezinezko izan du bere hildakoak bisitatzeko hitzorduan egotea.

Martxoan hau dena hasi zenean, herri mugimendu eta sindikatuak oso kritiko agertu ziren erabilitako hiztegi beliko eta neurri militaristekin, arrazoi osoz gainera –“pandemia ez da gerra bat”, zioten–. Baina tamalez, gure aiton amonek duela 80 urte nozitutakoarekin badiu antzekotasun batzuk orain bizitzen ari garenak. Orduan, fusilatuak gau beltzean eraman eta desagerrarazi egin zituzten, senideei dolurako aukerarik eman gabe eta zauri sakon bat irekiz. Oraingoan ere, beste maila batean, egoera latzak ikusi ditugu ospitale eta beilatokietan: bizirik zegoena errauts eginda itzuli diete askori, ez musu eta ez azken agurrik eman gabe.

Gerra urteetako gutun pertsonal eta dokumentu epistolarretan, sarritan esaldi bat agertzen da: “Hau dena amaitzen denean...”; konfinatu gintuztenean oihukatu genuen “dena ondo amaituko da” ezagunaren antza handia dauka. Esperantzara lotzeko esaldiak dira. Eta bai, gerra amaitu zen –pandemia noizbait amaituko den gisan–, baina bere ondorioek hamarkadak iraun zituzten, besteak beste, galtzaileei ordainarazi zietelako jazotakoa eta hildakoen oroimena bide-bazterretan ahaztu nahi izan zutelako.

COVID-19aren krisiak utziko dituen ondorio ekonomikoez asko hitz egiten da, aldiz, ez hainbeste zein arrakala sozial eta psikologiko geratuko diren honetatik guztitik. Zein dira benetako galtzaileak? Gure esku dago iraganeko trauma bera ez errepikatzea eta hemendik 80 urtera gaurko hildakoen memoria berreskuratzen aritu behar ez izatea. ●






## ILARGIAN UR IZOZTUA DAGO

**ILARGIA.** NASA AEBetako Aeronautika eta Espazioaren Agentzia Nazionalak baieztatu du ur izoztua dagoela ilargian. *Nature Astronomy* aldizkariak publikatu ditu 2018ko agorrilaren 31n egindako behaketen emaitzak. Hori horrela behaketen garaian jada irudikatu zutena baieztatu dute: “Ez dago gehiago zalantzarik”. Adierazi dutenez, gutxienez 40.000 kilometro koadro hartzen dituzte satelitean ur izoztua duten gainazalek. Ilargiko ura Lurrekoaren berdina da eta erabilgarria izanen da.

## MIGRAZIOA

# 140

lagun hil dira joan den astean, Kanariar uharteetara bidean zen ontzia hondoratu ostean Senegalgo kostaldearen aurrean. 2020an gertatu den hondoratzerik larriena izan dela adierazi du Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak. Beste 47 lagun hil dira Mauritaniako uretan, haien ontzia noraezean geratu ostean.



## Bilboko kale berri guztiek emakume izena izango dute

**JONE MARKULETA**

Egun, Bilboko 900 kale baino gehiagotatik 28k baino ez dute emakume izena, %3ak besterik ez. Hori aldatzeko erabakia hartu du Bilboko udalbatzak. Hemendik aurrera hirian sortuko diren kale, plaza, etorbide eta bestelako azpiegitura berri guztiek emakume izena izango dute.

### EKARPENAK EGIN DAITEZKE

Oihane Agirregoitiak (EAJ) nabarmendu du 2016tik egindako bederatzitik bide izendapenetatik zortzik emakume izena dutela. Kale berriak izendatzeko, alkateak herritarren ekarpenak onartuko dituela adierazi du. EH Bilduk zuzenketa propioa aurkeztu du eta mugimendu feministak kontuan hartzea eskatu du, baita kale berri batzuek indarkeria matxistak hil dituen emakumeen izenak izatea, biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko.

### URRATS TXIKI BAT

“Badakigu urrats txiki bat baino ez dela, garapen urbanistiko berrien ondorioz inoiz ez baita posible izango parekotasuna islatzea. Nolanahi ere, ekimen honekin emakumeenganako iraina gainditzen lagunduko dugu, neurri batean bada ere”, azaldu du Elkarrekin Podemoseko zinegotzi Carmen Muñozek.



**EUSKAL PRESOK.** Joan den astean, Iñaki Bilbao Goikoetxea presoak bertan behe- ra utzi zuen 50 egun iraun zituen gose eta komunikazio greba. Baina handik gutxira senideei jakinarazi zien gose eta egarri greba mugagabeari hasiera emango ziola azaroaren 2an.



**EITB.** EAJren eta PSE-EEren botoekin izendatu dute Andoni Aldekoa EITBko zuzendari nagusi. Euskara ez menperatzea egotzi dio Aldekoari ETBko erredakzio kontseiluak eta gaineratu du halako kargu batean dagoenak euskara menperatu behar duela.



**BERTSOLARITZA.** Irailean ekin zion aurtengo Xilabak ibilbideari. Xiberoa, Lapurdi eta Baxenabarre barnebiltzen dituen bertso txapelketak, baina, ezin izango du final herenetako fasetik igaro, konfinamendu neurriengatik. Antolatzaileak ziur dira “Xilaba plazetara” itzuliko dela.

# SILICON VALLEY-N GAUZATURIK DUTE JADA, MUNDURA ZABALDU NAHI LUKETEN ANTOLAKETA

Telelana lan-antolaketa berri bihurturik da langile askorentzat. Koronabirusak hala beharturik, azken urteetan helburu zutena egunetik biharamunera errealitate bihurtu zaie numerikoaren sektoreko oligarkei. Jendea etxetik dabil lanean, internet bidez. AEBetako Silicon Valleyn kokaturiko enpresa horien errealitateari so egitea komeni da, irudikatzeko biharko orokortu nahi luketen antolaketa eta harremantzea. "Internet hil ala bizikoa bihurtu zaigu egunetik biharamunera" diote pozik. Bizirik bagaude ere, ezberdintasun sozialak eta prekaritatea areagotzen dituen antolaketa berri batean gaude, ordea.

## JENOFA BERTHOKOIRIGGIN

**B**erriz ere etxeratze aginduak eta konfinamenduak bideraturik zaizkigun honetan, *Le Courrier International*-en *La Silicon Valley mise sur le télétravail assorti de réductions de salaire* (Soldaten apaltzea dakarren telelanean parioa egiten dabil Silicon Valley) artikulua arreta piztu dio kazetariari.

AEBetako Kalifornia estatuaren iparraldean kokatzen den San Frantziskoren Badian Silicon Valley deitu gunean batzen dira numerikoaren sektoreko enpresa boteretsu guztiak –Apple, Google, PayPal, Ebay, Yahoo eta beste–. Hiru milioi biztanle, 6.000 enpresa potolo, muturreko aberastasuna eta aldi berean muturreko pobrezia biltzen dituen eta BPG Txileko Estatuaren heinekoa duena. Xavier de la Porte kazetariak jada 2013an horrela deskribatzen zuen bertako egoera sozioekonomikoa: "Ikaragarriki aberats diren oligarka bakar batzuk, gaizki ordainduriko langile klasea haien zerbitzurako, eta tarteko klaserik gabe, edo arras ttipia". Iraganeko kontua dira 60ko eta 70ko hamarkadetan eskualde horretan loraturiko hipi-izpiritu eta kontra-kulturak. Muturreko liberalismoak estali zuen norbana-koaren autonomiaren ideala. 1976an Bill Gates gazteak –gaur egun mundu mailako bigarren pertsona aberatsena dena, bere 98 miliar dolarekin– inguruko gazteei bidalitako gutun batean kokatzen du bihurgunea Fabien Benoit *The Valley, une histoire politique de la Silicon Valley* (The Valley, Silicon Valleyn historia politiko

bat) liburuaren idazleak. Programa informatikoek aberastasuna sor dezaketela ohartarazi zien, jabetza pribatuaren kontzeptua mahai gaineratuz. Orduz geroztik, ezagutzen dugu munduak harturiko norabidea.

Aisialdia, lana, hezkuntza, harremantzea, kontsumoa, guztia internet bidez bideratzea amesten duten enpresek telelanean bihurgunea harturik dute beraz: Microsoft, Facebook zein Twitter egiturek "modu iraunkorrean telelanean aritzeko" aukera proposaturik dute, soldatak bizitokiaren arabera baldintzatuz –ulertu apalduz, soldaten %15ra arteko apaltzea *Wall Street Journal*-en arabera–. "Berrogeialdian pasatako hilabete horiei esker hamar urteko saltoa egin dugu", Eric Schmidt Googlen zuzendari izandakoaren hitzetan: "Internet hil ala bizikoa bihurtu zaigu egunetik biharamunera". Zorionekoak haiek, ametsaren gauzape-na hurbilago dute koronabirusari esker. Silicon Valleyn pasatzen denaz jakinean izan behar gara, bertan planteaturiko logikak mundu guztira zabaltzea dutelako helburu.

*Usbek&Rika* komunikabidearen *Pourquoi la Silicon Valley mise-t-elle sur le télétravail?* (Zergatik Silicon Valleyk telelanean apostua egiten du?) artikuluan agertzen denez, hemendik bost-hamar urtera sare sozialen kontrola duten enpresetako langileen erdia etxetik ariko da lanean, eta enplegatze orduan irizpide ere bilakatuko omen dute, ondotik

soldatak bakoitzaren herriaren arabera banatuz. Indiako *geek* jakintsuena Silicon Valleyra ekarrarazterik ez dute izango beraz, buruhausterik gabe kontratatzen ahalko dute eta gainera, bertako soldata miserablea bideratuz –seguruenik batz besteko soldata baino handiagoa, baina ogi pikor bat miliardunentzat–.

"2020an atomoak baino byteak hitgitzea errazago bihurtu zaigu, beraz nahiago dut gure langileak bideoz edo errealitate birtualez teleportatzea, auto metaketetan blokeaturik ingurumena kutsatzen aritzea baino", Mark Zuckerberg Facebooken buruaren hitzetan. Berdez pintaturiko argudio horren giblean gordez den errealitateari so egitea komeni da.

## LANGILEENTZAKO MEHATXUA

Batetik, enplegatze gastuak ttipitzeko bidea dute, aberatsak are aberatsago bihurtzeko bidea. Harturiko norabide hau kapitalismoaren logikan kokatzen du Fanny Lederlin filosofoak: "Mundializatuz mekanismo berak bideratu zituen industriak XX. mendean, hau da, deslokalizatu ziren eskulan merkeagoa atzemateko gisan. Gauza bera da, salbu orain lantegia eraikitze beharrik ere ez dutela. Erran dezagun argiki: langileentzako mehatxu bat da telelana".

Kontutan hartu beharrekoa da ere langileriaren eskubideen aldeko eta nagusiaren erabakien kontrako protestak errepikatu direla azken urteetan indibi-





### PROTESTAK ETA TELELANA

BERRIKI ARTE OHIKOA EZ  
ZENA ERREPIKATUZ DOA  
SILICON VALLEYN: LANGILEAK  
ANTOLATZEN ARI DIRA  
NAGUSIEK HARTURIKO  
ERABAKIEN KONTRA.  
PROTESTAK OZTOPATZEKO BIDE  
INTERESGARRIA DA TELELANA,  
LANGILEAK ELKARRENGANDIK  
URRUNTZEN DITUELAKO.

dualismoaren erreinua den Silicon Valley –2018ko apirilean Googleko langileak ziren protestan, 2018ko ekainean Microsoftekoak...-. Telelanak elkartasuna arraildu dezakeela badakite arras ongi numerikoaren esferako nagusiek: “Fisikoki langileak elkarrengandik urrunduz, elkartasunen eta protesten oztopatzeko bide ona da telelana”, Lederlinen arabera.

Ekainean plazaraturiko *How working from home works out* (“Nola funtzionatzen du etxetik bideratu lanak”) artikuluan, Nicholas Bloom irakasleak ikertzen ditu hiru garai ezberdin: COVID-19 aitzinekoa, izurriteak bideratu konfinamendu garaia eta COVID-19 ondorengoa, aurreikuspenen bidez. Txostenaren ondorioa mentalizatzen has gaitezen: “COVID osteko gure ekonomiaren zati integrala izango da telelana”. COVIDa aurretik

etxetik bideratu lana “bakana eta estigmatizatua” baldin bazen, orain, “estigmatizaziorik gabea, arrunta baina baldintza txarretan eramandakoa” dela dio: “Sekulan baino egoera txarragoetan lan egitera behartuak izan gara asko”. Zaintza eta lana batera kudeatu behar izan dutenak –gehiengo handian emakumezkoak–; baserri munduan dagoen internet sare ahula zein azpiegituren aldetik herritarren artean diren ezberdintasunak kontutan harturik, argi gelditu zaigu guztiena ez dela berdin telelanean ere.

Hori horrela, hiru kontseilu emanekz bukatzen du ikerketa: telelana denbora partzialean egin beharko litzateke; hautuzkoa izan beharko luke eta azkenik, go-goan atxiki beharko genuke telelana ez dela eskubide bat, baizik eta pribilegio bat. Agintari zein enpresa-buruei eska-

tzen die benetako eta sakoneko gogoeta bat eramatea, “atzera bueltarik ez duen lan-antolaketa berri honek” klase arrakala oraindik gehiago sakondu ez dezan. Bistan da, horri gehitu behar zaizkio ondoko errealtate jasangaitzak: kutsadura numerikoa –hemendik 5 urtera %7,6koa izanen da internetek eragin CO2 isurketen zatia–, enpresa horiek bideratu zerga ihesa –Attac-ek egindako kalkuluei segi, Google, Apple, Facebook, Amazon, eta Microsoftek batz bestean haien negozio zifraren %74 dute zergetatik saihesten– eta bizi pribatuaren zangopilatzearekin errimatzen duten datu pertsonalen kontrola eta ustiaketa.

Hala beharrez eta arduratsuki jarduteko ordua izanki, etxetik lanean ari garen honetan ez dezagun ahantz oligarka batzuen ametsaren gauzapenean garela. ●

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f w



# MUNDU ERO HONETAN DANTZA BEHARREZKOA DA



Gasteiztarra da eta 20 urte bete arte bizi izan zen Gasteizen.  
Bizitzaren beste erdia atzerrian eta Gipuzkoan egin du,  
eta egun Pasaian bizi da. Dantzaria, koreografoa eta dantza  
irakaslea da. Eta ama. Eta beste gauza asko.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

## **Gimnasia erritmikoan aritu zinen hasiera batean.**

Ni berez hirugarrena naiz. Bi neba zaharrrago dauzkat. Oso jarraian eduki gintuzten gainera, eta ni zaharrenen arrastoan joaten nintzen. Gogoratzen dut egun batean heziketa fisikoko irakaslea gerturatu zitzaiola nire amari eta esan ziola “neska honek zerbait egin behar du, ze gaitasun handiak ditu kirolerako”. Eta orduan eskubaloian eman nuen izena. Entrenamendu egun batean polikiroldegian ikusi nuen afixa bat, jartzen zuena “Club de gimnasia Oskitxo”, eta esan nuen: “Nik hori egin nahi dut”. Ez nekien zer zen. Baina joan nintzen proba egitera eta hor hasi nintzen, kasualitatez, gimnasia erritmikoan.

Buru belarri aritu nintzen geroztik. Gogoratzen dut eskolatik atera, autobusa hartu eta entrenatzera joaten nintzela, lau orduz jarraian. Bederatzi ur-

terekin hasi eta hamalau urtera bitarte. Oso gogorra egin zitzaidan eskakizun maila hura. Ez nintzen behar bezain fina, nire giharrak nituen... Diziiplina izugarria jarri ziguten, janaria kontrolatu... Gogoratzen dut borrokatu behar izana nire gosearen kontra, amaren kontra, denaren kontra.

## **Hura utzi zenuen orduan, baina kirolean jarraitu zenuen.**

Bai. Eta ikasketak ere bide horretatik egitea erabaki nuen. Heziketa Fisikoko Magisteritza ikasi nuen. Mendia zela, igeriketa zela, eskalada zela... Kirol pilo bat probatu nituen ikaskideekin, eta oso garai dibertigarria izan zen. Orduan, zerbait ikasten segi nahi eta Donostiara etorri nintzen Psikopedagogia ikastera. Ondoren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduan eman nuen izena. Mugimenduak erakarri nau beti.

## **Noiz sartu zen dantza zure bizitzan?**

Ba graduko azken urtean, pentsatu nuen: “Ezin dut hainbeste urte ikasten pasa eta Erasmus ez egin”. Orduan, Portugalera joan nintzen. Eta berriz ere, nik espreski erabaki gabe, ate bat ireki zitzaidan. Lisboako Faculdade de Motricidade Humana izeneko eskolan ikasten nuen, eta han uztartzen zituzten dantza, ergonomia, heziketa fisikoa... Eta irakasle batek erabaki zuen taldetxo bat sortzea, eta ikuskizun bat sortu genuen, *Perto do Mar* izenekoa. Hondartzan egiten zen ikuskizun bat zen. Orduan, pentsa, hondartzan entseiatzen genuen nire lagunak, nik eta nire rastek, eta jira bat egin genuen hondartzaz hondartza, Portugal osoan zehar... Zoragarria izan zen. Nire bizitzako urterik politena. Eta horrela, dantzaren harra sartu zitzaidan, nola ez. Hura zen ni bilatzen ari nintzena. Kirolarena aitzakia zen, mugitzeko, ze nire







# Noemi Viana García

GASTEIZ, 1979



Heziketa Fisikoko Irakasle ikasketak, Psikopedagogiako gradua eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua ikasi zituen. Ikasketak bukatzean dantza munduan sartu zen eta bide horretatik jarraitu du bere bizitzak. Berak nahi gabe bezala. Baina nahita. Hainbat koreograforekin lan egin izan du, bere koreografiak sortu ditu, taldean, binaka, zein bakarka. Eta batez ere, dantzan aritu da. Eta ari da.



gorputzak mugitu behar du, baina bat-batean dantzarekin ohartu nintzen mugitu zintezkeela esanahi batekin. Zerbait kontatu dezakezula mugimenduen bitartez. Eta ez baitezpada emaitza bat lortu. Soilik mugituz zure emozioak adierazi behar dituzula? Gauza liluragarriagorik!

## Handik itzuli zinenen, zer?

Bat-batean Donostian nengoen, gimnasio batean lanean... Eta esan nuen: "Barkatu? Nik hau ez dut nahi!". Nire bizitzan argiago izan ohi dut zer ez duan nahi zer nahi dudana baino. Hori

normalean jakiten dut. Baina zer nahi dudana ez dut oso argi izaten. Horregatik, beti joaten naiz leihoak irekitzen, eta gero bizitzak erabakitzen du. Bizitzak edo nik neuk, baina nola nahi ere, ez oso kontzienteki. Eta gogoratzen naiz pasa nintzela Aldamar kaletik, han dantza denda bat dago, eta afitxa ikusi nuela: "London Contemporary Dance School". Sarrera-proba baterako deialdia zen, eta justu probaren egunean Lisboako lagunekin topaketa bat antolatua genuen, sagardotegian! Erabaki behar nuen egun horretan Bilbon proba egin, nahiz eta pentsatu



ez nindutela hartuko, edo sagardotegi-  
ra joan Lisboako lagunekin. Proba egi-  
tea erabaki nuen, oraindik ez dakit oso  
ondo zergatik. Eta hartu egin ninduten.

### **Eta Londresko The Place Dantza Garaikideko Eskolan sartu zinenen, zer?**

Oso gaizki sentitu nintzen. Eskola har-  
tan denek hamabost urte zeramatzaten  
dantzan, denek ezagutzen zuten baleta,  
denek izan nahi zuten dantzari profes-  
ional... Nik hogeita bost urte nituen eta  
ez nekien ezer! Ezta ingelesez ere! Gai-  
nera, ez nintzen inolaz ere dan-  
tzariaren prototipoa, gorputz  
liraina, ilea mototsean  
bildua.... Eta oso han-  
dia sentitzen nintzen.  
Gogoratzen dut gelan  
mundu guztiak ja-  
rraitzen zituela pau-  
soak zehatz mehatz,  
eta nik nire burua  
munstro bat bezala  
ikusten nuela, baldar,  
pausoak berandu ema-  
naz eta parekoa kopiatuz...  
Gaur egun asko eskertzen dut  
hura bizi izana, baina momentuan  
oso gogorra izan zen.

### **Ez zenuen alde egin?**

Pentsatzen nuen, "urtebete". Ondo edo  
gaizki, urtebete izango da. Dantzatu  
egin nahi nuen! Banekien dantzak ba-  
zeukala zer edo zer nire oso barneko  
zerbait ateratzen zidana. Bestalde, ko-  
reografo piloa ezagutu nuen, teknika  
desberdinak... Eta urtebete izan behar  
zuen luzatu egin zen. Eskolako Edge  
izeneko konpainiarako aukeratu nin-  
duten. Dantzan jarraitzeko aukera bat  
zen, eta beste urtebetez jarraitu nuen  
ikasten. Koreografiak montatu, birak  
egin... beste opari bat izan zen. Ikasten  
ari nintzen! Eta kontaktu asko egin ni-  
tuen: batek deitzen zidan pieza batera-  
ko, besteak beste baterako...

### **Halako batean, itzuli egin zinen...**

Londres ez zen nire hiria. Eta han-  
go aukerak bukatu zitzaizkidanean  
itzultzea erabaki nuen. Nola? Hori ere  
ri-rau. Egun hartan emanaldi bat ge-  
neukan Portugalgo ez dakit zer hiritan.  
Eta biharamun goizean Artelekun audi-  
zio bat zegoen Asier Zabaletarekin lan  
egiteko Ertza konpainian. Edge, Ertza...  
beti *in the limit*! Eta pentsatu nuen, "hau  
izan daiteke nire aitzakia itzultzeko".

Orduan zer egin nuen? Gaueko hama-  
rretan emanaldia bukatu, nire autoa  
hartu, eta bakar-bakarrik penintsula  
gurutzatu. Garaiz iritsi nintzen, eta har-  
tu egin ninduten. Eta pentsatu nuen bi-  
zitzak esan zidala hura zela bidea.

### **Dantzari gisa urte batzuk egin ondoren, koreografiak sortzen hastea erabaki zenuen.**

Jesús Rubio eta biok hasi ginen proba-  
tzen, eta *Pi20* gure lehen pieza mon-  
tatu genuen. Lanak 2010eko Madril-  
go Koreografia Lehiaketa irabazi zuen.



**Kirolarena aitzakia zen,  
mugitzeko, baina bat-batean  
dantzarekin ohartu nintzen  
mugitu zintezkeela esanahi  
batekin; zerbait kontatu  
dezakezula mugimenduaren  
bitartez"**

Lehenengo lan haren arrakas-  
tak aukerak eman zizkidan  
bide horretan jarraitzeko.  
ImpPulsTance Vienako  
Nazioarteko Dantza  
Jaialdira gonbidatu  
ninduten, baita bes-  
te hainbat tokitara  
ere... Irekidura bat  
eman zidan, mun-  
duan zehar gertatzen  
zena ikusteko parada.  
Opari izugarria izan zen.

Eta batez ere pentsarazi  
zidan egiten nuenak zentzua  
zeukala, ez zela lelokeria bat, ez  
zitzaidala burua joan dantza munduan  
sartu nahi nuela erabaki nuenean.

Aldi berean, pentsatzen nuen: "Ho-  
rrelaxe atera zait, asko gustatu zaie...  
baina nik ez dakit hau nola egin dudan  
ere! Orain, zer?". Demostratu beharra-  
ren sentipena, berriz ere. Oso arrunta  
da emakumeengan, ezta?

Kontuak kontu, koreografiak sor-  
tzen hasi nintzen, eta Anakrusa konpai-  
nia sortu genuen Iñigo Ortégak, Eneko  
Gilek, Jon Estalak eta laurok, eta hiru  
pieza egin genituen, *Tempus,-i, Duo* eta  
*Insitu*. Gustua hartu nion koreografiak  
pentsatzeari. Dibertigarria egiten zi-  
tzaidan. Hori izan zen nire sortzaile fa-  
sea. Eta haurdun geratu nintzen.

### **Eta sabela handitu ahala, zer?**

Berez emakume sortzaile izatea oso  
zaila da. Kristalezko sabaia hor dago  
lehendik ere. Eta ama zarenean, energia  
beste zerbaiti eskaintzen diozu eta nahi  
eta nahi ez dantzak lehentasuna gal-  
tzen du, eta desagertzen zara. Edo nire  
kasuan behintzat hala izan da. Ez inork  
inposatu didalako. Oso argi gogoratzen  
dut ama izan nintzenean esaten nuela,  
"hemen ez da ezer gertatu, nik dena beti  
bezala egiten jarraituko dut". Bai, beti  
bezala, baina lo egin gabe, titia emanez



## **DENA ULERTU BEHARRAZ**

"Zenbat aldiz entzun ote dudan 'ez  
dut joan nahi emanaldi bat ikuste-  
ra ez dudalako ezer ulertzen'. Esze-  
natokitik ikusten da hori jendearen  
aurpegietan. Dantza garaikideko  
pieza baten aurrean jartzen dire-  
nean, kezkatuta bezala daude. 'Zer-  
bait ulertu behar dut eta ez naiz  
ulertzen ari'. Eta ez dira erlaxatzen.  
Gogo zabalik baldin baduzu, beti  
jasoko duzu zerbait. Eszenak, ar-  
giak, koloreak, musika, gorputzak,  
aurpegiak, mugimendua bera. Eta  
norberak askatasuna du pieza nor-  
bere egiteko. Ni *hau* ari naiz ikus-  
ten, eta *hau* mugitzen dit hemen  
eta orain. Ba gelditu horrekin, ze  
gaur zuretzako hori da errealita-  
tea. Hori da dantza garaikidearen  
magia. Baina hainbeste epaitzen  
dugu gure burua, ez diogula zabal-  
tzen uzten. Gure abiapuntua da ba-  
dagoela intentzionalitate bat, eta  
ez dugula ezagutzen. Bai noski, ko-  
reografoak intentzionalitate bate-  
kin egin du, baina bere helburua ez  
da zuk berak bezala ulertzea. Hala  
ulertzen baduzu, primeran, baina  
bide pila bat daude eta hori da po-  
litena. Dantza garaikideak ez dizu  
ezer eskatzen".

## **BIZIPOZA**

"Eskerrak dantza ezagutu dudan.  
Oso pozik nago horregatik. Nik  
uste dut mundu guztiak duela bizi-  
tzan bizipoza ematen dion zerbait.  
Batzuk olerkiak idatziko dituzte,  
besteek marraztu... eta askok ez  
dute ezagutzen haien bizitza osoan  
zehar. Nik bai, nik ezagutu dut eta  
dantza da. Dantzatzen dudanean  
zoriontsua naiz. Berdin du esena-  
toki batean egon ala ez. Mugitzea  
bera da kontua. Emozionatu egiten  
naiz esate hutsarekin. Dantza eza-  
gutu dut eta hor egongo da betira-  
ko. Eta gaur egun nahiz eta ez na-  
goen zirkuitu profesional horretan,  
dantza nire bizitzaren parte da".

eta etengabe pentsatzen nola egongo ote den nire haurra, nori utziko diodan nik ensaiatu bitartean zaindu dezan... Azkenean nire energia ez zegoen sorkuntzan eta ez zegoen inon, eta ez nuen egiten ez gauza bat eta ez bestea.

Azkenean hondoa jo nuen, eta orduan jabetu nintzen. Erabaki nuen ama izango nintzela behin edo bitan nire bizitzan eta hori oso modu kontzientean bizi nahi nuela. Orduan, Donostiako musika eta dantza eskolan irakasle lanpostua eskaini zidaten eta hilabeteroko soldatari eta ordutegi erregularrei eutsi nien. Dantzarekin harremana mantentzeko modu bat zen. Eta ez naiz damutzen gaur egun. Baina egia da sistemak ez zaituela laguntzen ama izan eta dantza munduan sorkuntzan jarrai dezazun.

### Itzultzeko asmorik baduzu?

Oso zaila da. Jendea ez dago zure zain. Zure gorputza zortzi urte zaharragoa da, eta dagoeneko ez zaude fisikoki gorrenean. Pasa zara bi haurdunalditatik, eta zure gorputza ez da berdina. Zu ere amatasunak aldatu egin zaitu, eta berri ere ezagutu behar duzu zure gorputza. Oso gorputz desberdina daukazu. Hor egin behar den lanak denbora eta

energia eskatzen du. Zaila egiten zait itzulera irudikatzea. Ez dakit nahi duan ere. Batzuetan pentsatzen dut "hori pasa nuen, eta oso eskertuta nago, baina beharbada ez dut dantza sorkuntzaz bizi nahi". Eta beste batzuetan sekulako gogoia ematen dit...

### Adinean aurrera egin ahala, zure burua dantzan ikusten duzu?

Nik horretan sinesten dut eta aldarrikatu nahi dut. Ez dago adin bakar bat zure gorputza perfektua dena dantzarako, ez daukazu urte jakin horietan atera beharrik zuku osoa zure gaitasun efimero horri... Nik uste dantza egokitzen dela adin guztietara eta gorputz guztietara. Askotan esaten didate, "a, dantzaria zara? Hori izan da beti nire pasio frustratua", eta nik beti erantzuten diet edozein momentu dela ona. Dantza garaikidean balio duena da kontatzeko duzuna eta kontatzeko modua. Eta horrek ez dauka zerikusirik adinarekin, alderantzizko zentzuan ez bada. Zenbat eta zaharrago gauza gehiago eta interesgarriagoak izan ditzakezu kontatzeko. Gorputzak bere mugak dauzka, noski, baina muga horien barruan ere infinito mugimendu daude.

### Dantza irakasle zara orain.

#### Zer irakasten duzu?

Azken batean, nok bere mugimendua bilatzen laguntzea da nire lana. Ez gaudela ohituta. Gure gizartean dena dago oso pautatua, bi bide baldin badaude, bat da zuzena. Bizitza ez da horrela, eta dantza garaikidea ere ez. Aukera piloa dago. Aukeratu bat. Aukeratu bide bat. Zuk behar duzuna. Niretzat, mundu ero honetan salbokondukto bakarra dantza da. Horregatik gustatzen zait irakaskuntza ere. Nire pasioa transmititzeko aukera ematen dit. Eta zuk hortik zerbait jasotzen baduzu eta dantza maitatzen hasten baldin bazara, nahikoa. Zuri pertsona bezala zerbait eskaintzen baldin badizu dantzak, nahikoa. Joan ikustera, hitz egin dantzari buruz, elkartu zure lau lagunekin aspero eta egin koreografiak... Gizartean hiper paralizatuta bizi gara, eserita, pantailen aurrean, burua etengabe lanean... eta gorputza? Gorputzak bere gaitasunak ditu, bere memoria, eta ez dakigu erabiltzen. Ba goazen probatzera! Zer dauka nire gorputzak kontatzeko? Zein da nire mugitzeko modua? Nola gustatzen zait? Dantza hor dago, ba erabili dezagun ●

Azarokoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- **EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT**
- **BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT**
- **10 ZENBAKI URTEAN**

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29€** ● [aizu.eus](http://aizu.eus)





## Artsakh Errepublikaren txinparta geopolitikoak

**A**rtsakh Errepublika gehiengo armeniarreko lurraldea da, Azerbaijanek eta Armeniak borrokatzen dutena aspalditik. Eskualdea gehiengo azeriarreko lurraldez inguratutik zegoen enklabe bat zen eta, agian horregatik, sobietarrek probintzia autonomo bezala utzi zuten Azerbaijanango Sobietar Errepublika Sozialistaren baitan. Baina behin Sobietar Batasuna desagertuta, Armenia eta Azerbaijan gerra latz baitean barneratu ziren.

1994ko su-etenak Armeniaren garapena kontsolidatu zuen: nazioarteko aitortzarik gabeko Artsakheko Errepublikak ia hirukoiztu egin zuen bere lurraldea Azerbaijanian kendutako gehiengo azeriarreko zazpi barrutiei esker, orotara Bakuk bere lurraldearen %20 inguru galdu zuen. Ehunka mila azeriarrak ihes egin zuten Azerbaijanera, atzean utziz armeniarrek segurtasun-uhale bezala izendatu zituzten lurraldeak.

Ordutik tentsio uneak egon diren arren, gatazka izoztua egon zen 2016ko lau eguneko gerra arte. Azken honek 2020an hasi dena iragarri zuen. Azerbaijanek bere gastu militarra asko handitu du gasa eta petrolioari esker aberastu delako. Horrez gain, Bakuk bere aldeko lau faktore determinante dituela uste du: nazioarteko legediaren babesa, hamar milioiko populazioa armeniar hiru milioiren aurrean, Turkiaren babes osoa (NATOk bigarren ejertzitorik handiena eta ia 85 milioi biztanle) eta Mendebaldearekin aliantza ekonomiko hertsia.

Logikak esango luke Mendebal-

Zoritzarrez  
Armeniarentzat  
'realpolitik'-ak agintzen  
du nazioarteko  
harremanetan.  
XX. Mende hasierako  
genozidioan bezala,  
Mendebaldea  
ez da etorriko Armenia  
salbatzera

deak Azerbaijanen alde egin beharko lukeela, are gehiago, kontutan hartzen badugu Armeniak Errusiaren lidergo pean dauden segurtasun eta ekonomia aliantzetan parte hartzen duela. Baina Mendebaldea ez dago oso eroso auto-krazia bat (Azerbaijan) defendatuz dentsitate demokratiko baxuko herrialde baten aurrean (Armenia). Halere, deserosotasunaren motibo nagusia armeniar diaspora da: hamar milioi pertsona inguru ondo antolatutako eta kohesionatutako lobby lana egiteko.

Kontraesanak ez ditu soilik Mendebaldeak, gerra hau buruhauste handi bat izaten ari da Moskurentzat. Alde batetik, Errusiak merkataritza-balantza oso aldekoa du Azerbaijanekin; eta bestalde, Bakurekin duen harremana eredu-ga-

rria da bere aliatuak ez diren inguruko herrialdeekin: Azerbaijan neutral gisa agertzen da Errusiarekin egon daitezkeen nazioarteko gatazketan eta ez du elikatzen errusofobia.

Turkia, berriz, argi duen potentzia bakarra da, izan ere, azeriarrak hego Kaukasoko turkiarrak bezala defini gennitzake era baldarrean. Azerbaijan estatutu independente bilakatu zen unetik Ankarak "bi estatu, nazio bat" politika bultzatzen du. Ildo horretan, duda gutxi daude Ankarak gerra honetan jolastu duen paperaz: Azerbaijan animatu, babestu eta ekipamendu militarrekin eta mertzenarioekin hornitu du.

Zoritzarrez Armeniarentzat *realpolitik*-ak agintzen du nazioarteko harremanetan. XX. Mende hasierako genozidioan bezala, Mendebaldea ez da etorriko Armenia salbatzera eta esperantza nagusia Errusia da berriro. Halere, Moskuk ez du zuzenean esku hartuko gerran eta ahal duen neurrian bi herrialdeen arteko su-eten egonkor bat lortzen saiatuko da. Lortuko ez balu eta Azerbaijanek Artsakh Errepublika konkistatzen jarraituko balu Moskuk esku hartu beharko luke, Armenia aliatu gisa galdu nahi ez badu. Horrek ez du esanahi errusiar ejertzitza borrokan sartuko litzatekeenik, baina bai Turkiak egiten duen gauza bera egin dezakeela, hau da, Moskuk Donbasen dagoeneko egin duena: inteligentzia militarra, armamentua eta mertzenarioak erraztu. Agertoki horretara iritsiko bagina, gatazkak dimentsio internazional arriskutsua hartuko luke. ●



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

# Oreka



**BEIA SALABERRI**  
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

**F**ilosofoak dio, umilki, emozio orori ongi etorria egin beharko geniokeela, eta edozein motako gogoe-tari utzi beharko geniokeela lekua hartzen eta garatzen, biziaren esentzia aldaketa delako eta aldaketari ihardukitzen ikastea dela bizirautea, bizia bera funtsean; desorekari buru egin behar litzateke oreka berria aurkitzeko, hori omen da gure bidea; gogoetei heltzera utzi, obsesionatu gabe, doiki, eta hauei hain zuzen ere heldu behar genieke, menperatze aldera.

Bizkitartean, filosofiari leku gutxi dugu egiten azken denboretan, preseski egoerak horretarako enbeia sortu behar lukeelarik. Seguritatearen alderdira ekarriak gara eta horixe dugu gogoan hain zuzen, segurtasunean jarraitzea, lehen bezala, oreka berriak bilatzeko premia dugularik, egitasmoei heltzearen beharra.

Alta lehen bezala ez da deus izanen, ez eskola, ez lana, ez munduaren ikus-teko moldea ez eta besteaz dugun ikus-pegia. Arbolak ere ez ote dira ezberdin? Urte honen hasierak milaka kilometroko distantziakoa iduri du, aurrekoaren oroitzapena, guhaurk ere, lauso ikusten dugu. Helduak gara maila batera non ez

dugun proiekturik, ez proiektziorik epe laburrean, ez eta hamabostaldikorik.

Epidemiez mintzo diren elaberriak eta kontakizunak ez dira eskas. Hauetako egoeren antza handiak ditu gaurkoak, epidemiologikoki bezainbat soziologikoki. Salbu, haietan ez bezala, gure erreazioak bihurtu direla gehiengo batekoak, bapatekoak, zoratuak, zifrituak, gibelapen edo perspektiba gutxikoak. Eta agian hori da deigarriena. Irakurri izurrite fikzioetan, protagonisten sinesteak bestelakoak ziren, erreferentziak, tirriak gisan berean beste gisakoak. Kezka bat zegoen geroaz, egokitzeaz eta garapenaz, pertsonenganako sinestea agerikoa zen, bihar bat egonen zen, kaosaren erdian gai arruntek, kezka normalek ere beren bidea egiten zuten.

Gaurkoan, arrangura gehiago dugu jakiteaz noiz arte bereiz egon beharko ote dugun, noiz poteak hartzen ahalko ote ditugun, pilota partidak ikusiko ala ez, ea Googlek eutsiko duen erori gabe, eta globalki ea iraunen dugun, indibidualki. Eta bada ideia bat besteei gailentzen zaiena eta goizetik arrats oroitazten zaiguna: garbitasuna, ingurune aseptikoa. Horretaz baizik ez da jarduten: astero aholku berri bat agertzen da mi-

krobioen urrun uxatzeko eta lekuak, aktibitateak sailkatzen dira garbitasun kriterioaren arabera. Hortik, lana ona da. Familia, neurrian. Aldiz kirola ez da sobera hala. Lagunak batere. Kultura ez gehiegi. Patria gauza ona da.

Badirudi lanjer berriak armarik gabe utzi gaituela. Gaitzaren kontra, noski, baita gaineratekoaren kontra ere. Armarik gabe gara, mentalki, etikoki, espiritualki, sozialki. Nagusitzen den sentimendua da perdizioarena, eraikitze eta pentsatzeko denborarik ezarena, ideiak hazteko paradarik eskasarena. Biziaz dugun arrangura mikrobiologiko hutsa bihurtu da, eta haizatu ditu biziaren beste alde guziak, biologikoa, soziologikoa, politikoa, filosofikoa nolaz ez. Ez diegu ideiei heltzen, emozioak filtratzen dizkigute.

Maitatzea, kexatzea, arbolak landatzea eta planak egitea egokia litzateke. Dudatzea, panikatzea, gauzen ondotik iragatea, arinak izatea gutiziatu beharko litzateke. Dardaratzea, kontradikziotan itotzea, hobeki egitea, berriz egitea irrikatu beharko genuke. Gaitzetik atera eta hoberena atxiki. Asmoei heldu eta oreka berrien bila abiatu: hori opa diet gure buruei. ●





**NEREA IBARZABAL  
SALEGI**  
BERTSOLARIA

## Uzkurtzea

**U**zkurtzen ditu begiak barraskiloak, inork ukitzen badizkio, edo uzkur-tzen du gorputz osoa bestela; oskol barruan desagertzen daki, korapilo bihurtuta. Uzkur-tzen da sugea bere burua inguratuta ikusten duenean; uzkur-tzen da trikua, muturtxo fina bakarrik bistaratzen zaiola arantzapetik. Uzkur-tzen da, noski, armadiloa, horretarako egina baitauka gorputza, eta halatsu uzkur-tzen da kukurutxa ere, erratzaren ileen azpitik ihes egiten dakien “bola-zomorroa”. Uzkur-tzen da harra, “I” bat izatetik “C” bat izateraino, edo espiral itxiago bat ere bai, egoeraren larritasunaren arabera.

Uzkurtzen dakite zenbait landarek ere, itsaspekoek zein lurrekoek; *mimosa pudica*-ri, adibidez, orriak itxi egiten zaizkio atzamar puntarekin lastanduz gero (eta haizea badabil, eta bero egiten badu, eta zarata ozenen ondorioz...), liburu txiki berdeak bailiran.

Uzkurtzen omen da ekonomia ere, eta uzkur-tuko da, hori esaten dute. Baina lehengo abiaduran ez haztea uzkur-tzea ote da? Lanera joateko baimen ofizialak ematen diren garaiotan, ez ote da ari etengabe mutatzan, eboluzionatzen... ekonomia, inoiz uzkur-tu beharrik ez izateko? Enpresei langileen kaleratzeak erraztuz, soldatak jaitsez, pribatizatuz... Ez, sistema politiko-ekonomiko hau ez da uzkur-tzeko instintua duen animalia horietako bat, ze giharren uzkur-dura

orokor batek denoi eragingo liguke berdin, gorputz-atal guztiei, eta hemen ez da hori gertatzen. Hemen batzuek aberasten jarraitzen dute, eta besteentzat da uzkur-dura, txikitzea, estutzea. Zein animalia mota da, orduan? Bizkarroi bai? Ziurrenik. Behekoen lan-indarra eta denbora xurgatzen dituen goikoen mesedetan. “Hautespen naturala” deituko zaio gero zenbat sektoreren prekarie-tateari.

Uzkurtzen dira mingainak eta beta-zalak limoi bat miazkatzerakoan. Uz-kurtzen dira baginako paretak, uzkur-tzen dira barrabilak igerileku hotzetan sartzean. Birikak ere uzkur-tzen dira ar-nasaldi bakoitzean, eta giharrak, mugit-zen garen aldiro. Uzkur-tzen dira gose diren urdailak. Bizirik gaude uzkur-tzen garelako, uzkur-tzeak berak askatzen gaituelako gero. Baina beldur naiz ez ote dauden gure kontzientziak, gure bar-ruak, gure gorputzak, luzaroan uzkur-tuegi, larruazaleko zentimetro batzuk moztu izan balizkigute bezala; hortxe goaz, justu-justuan, ximur eginda, os-kolen barruan, indarrak nondik atera ez dakigula, ez dakigula zer erantzun “zelan?” galderari. Eta ekonomiaren pa-retak estutzen hasten badira, eta hasi dira, komeniko litzaiguke gutxienez so-fako mantaren azpian ezkutatzeko sen honi aurre egitea, bola-zomorroari ere ez baitio taktika horrek balio hanka han-di batek zanpatzen duenean. ●

## GLDtarrak



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IRAKASLEA  
ETA IDAZLEA

**T**.-k ez du egundaino ongi ulertu pankarta batean baino gehiagotan ikusi izan duen sintagma baten era-bilera. Hiru hitzeko lelo bera izanagatik ere, estrategia ezberdinak begiztatu izan ditu horko eta hemengo manifestazioe-tan: batzuetan langileek “gure” hanpatu nahi izan dute; beste batzuetan, berriz, erdian ageri den “lanpostuen” hitzari eman zaio kapitaltasuna; eta, halako lan dolua iragartzen zuen afixa bat ikusi zuen hondarreko aldian, “defentsan” zen elementurik nabarmenena.

T.-k ez du egundaino ongi ulertu pan-karta baten baino gehiagoren atzean

entzun izan duen isiltasuna. Nola liteke hainbesteko arrangura eta amorrua sor-tzen dituen egoera kolektiboan langileak (eta haien ingurukoak) mutu joatea? Balirudike etsipena inplizituki adostua dela: oihuka aritzeak ez du deusetarako balio, eta besterik ezean jotzen da lan es-kubideen aldeko aldarrikapenera.

T.-k ez du egundaino 3-Bko gizona-rekin hitz egin, igogailuko elkarriketak bazter utzita. Eta, gaurkoan ere, ez dute aparteko solasaldirik izan atarian elka-rrekin topo egin dutenean: pegatina bat eman dio, modu maskulino-lakonikoan. GLD inzialak agerian. ●

# Fratelli tutti



JOSE IGNAZIO ANSORENA  
TXISTULARIA

**F**ratelli tutti. Kristau katolikoon gidari nagusia den Frantziskoren azken entziklikaren izenburua da. Poz handia eragin du komunitate kristauan, *Laudato si* aurrekoak bezala. Biek ala biek, García Márquez-en obra famatua gogoan, *Maitasuna COVID-19aren garaietan* azpigitulu izan lezakete.

*Fratelli tutti*. Kosta egiten da *tutti* hori irenstea. Santi Abascal legebiltzarrean biktimen zerrenda destilatzen, Melitón Manzanasko torturatuak biktima agertzen delarik. Nigeriako polizia sarraskigilea edo Estatu Batuetako beltz akabatzaileak. Emaztea asesinatzeagatik espetxean izan eta baimenaz ateratakoan neska laguna akabatzen saiatu dena. Gehiegikeriez haur eta gazteak bizitza osorako markatu dituztenak. *Fratelli tutti*.

Justiziak atzera bota ditu Eusko Jaurlaritzak pandemiaren kontra proposatutako neurri batzuk, legezkoak ez direlakoan, eta honen ordezkariak haserre epaileekin. Dugun sistema judicialaren eskasia guztiekin ere, nahiago diktadura? Azkenekoa gainera kentzea berrogei urte kostatu zen eta, ustez

Espetxeetan diren presoak. Hauen sufrikarioarekin min hartzen dutenak eta ziegetan hiltzen direnean poztzen diren bihotz lehorrak. *Fratelli tutti*

amaitu zenetik ia berrogeita hamar pasa arren, oraindik sufritzen ari gara ondorioak. Politikariak eta epaileak. *Fratelli tutti*.

Guretzat ulergaitzak diren bizimodu edo sexu aukerak dituztenak, bizitza hoberen bila gure herrialdeetara datozenak, pobrezia edo gerratik ihes. Kaleetan botata dauden drogazale eta eskaileak, edo mozkorrak. Baita horien aurka jarduten direnak ere. *Fratelli tutti*.

Diotenak: "Nik hori berehala konponduko niake..." eta jarraian dagokion astakeria (Lau ostia eman, izugarritzko isuna jarri, espetxerako neurrigabeko

zigorrak...). Dena berehala konpondu ustez den-dena lardaskatzeko ahalmena dutenak. *Fratelli tutti*.

Ostalaritzan, kulturean, industrian, hezkuntzan, alor askotan krisi hau hainbestearino pairatzen ari diren langile eta enpresario zintzoak. Eta horien arteko zirrikitueta ezkutatzeko diren zital zurrupatzaileak ere bai. *Fratelli tutti*.

Espetxeetan diren presoak. Hauen sufrikarioarekin min hartzen dutenak eta ziegetan hiltzen direnean poztzen diren bihotz lehorrak. *Fratelli tutti*.

Entziklika honek jabetza pribatuaren eskubidearen gehiegizko eta bidegabeko erabileraren salaketan euren aberastasunak arriskuan sentitu eta Frantziskoren aurka sekulako kanpainak, sareetan eta bestelakoetan, finantziatzen dituztenak. *Fratelli tutti*.

Eta, *hala ere* –hau Leteri kenduta–, *fratelli tutti*. Zaila da ulertzea da gaitzagoa onartzea. Baina horixe du ezagutgarri Nazareteko Jesusen mezuak: *fratelli tutti*. Bedeinkatua Zu, Goi-Goikoa, kontu hauek jakintsuei eta adituei gorde eta jende xumeari agertu baitizkiozu. *Fratelli tutti*. ●

ARGIA

**Bizi nahi duen herria!**

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA



Jende gehiagori  
ahotsa emateko,  
lagun gehiagorengana  
heltzeko eta  
eragiten jarraitzeko  
**EGIN ARGIAKOA!**





BARATZEA  
BASOA  
LORE BARATZEA  
FRUITU BARATZEA

**B**izitzarako agenda berezia dugu honakoa, norberaren egunerokoa ilargiarekin eta lurrarekin uztartzeko erraminta baita. Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikastez gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak, gure bizitzako hitzorduak, egin beharreko lanak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak. Eta aldi berean, agendan irakurri ahalko dugu ilargiaren arabera aste bakoitzean lurra nola landu: zer erein, zer landatu, nola inausi, nola tratatu, zer uzta jaso, nola txertatu...



# Ilargia eta landareak 2021

AGENDA

14€

Jakoba Errekondo  
Antton Olariaga

EROSTEKO

[argia.eus/azoka](http://argia.eus/azoka)

943 37 15 45



ARGIA

BIZI BARATZEA

# Kartzela, zaintza eta emakumea\*

Lurgatz talde feministak Villabonan mahai-inguruan bildu zituen kartzelatik pasatako lau emakume: Maite Ortiz, Katia Reimberg, Maite Aranalde eta Nekane Txapartegi. Bizipenetatik laukote aberatsa osatu zuten, gaia ertz anitzetatik lantzeko: garai ezberdinetan eta Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako eta Suitzako kartzeletan egondakoak dira, hauetako batzuk torturak jasandakoak, hauetako batzuk ama izanik preso sartu zituztenak, hauetako batzuk preso migranteak...

## ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

**K**artzela pertsona suntsitzeko instituzioa dela eta gizonen-tzako pentsatua dagoela azalduz egin dio mahai-inguruari sarrera Esti Amenabarro moderatzaileak: "Gizarte neolibera eta patriarkalak ez du aurreikus-ten emakume batek ezer txarrik egin

dezakeenik, beraz, espetxea ez da emakumeentzako". Katia Reimberg sortzez Brasilgoa da eta Martuteneko kartzelan egona da bost urtez. Ez dagoela emakumeen kartzelarik azaldu du, kartzela barruetan emakumeentzako moduluak baizik, eta hori ezberdina dela: "Kartzelak emakumeentzat egokitu egiten dituzten espazioak dira, ez dago emakumeentzako kartzelarik. Sexismoa dago eta ezberdina da kartzelan gizona edo emakumea izatea. Guri ematen dizkiguten materialak beti-beti dira gizonezkoei sobratu zaizkienak... Martutenen emakumeen modulutik gizonen modulu batera pasatzea, harategira sartzea bezala zen: gizonak piroa oihukatzen dizkizute, etengabeko eraso jasaten dugu emakume gisa". Maite Aranalde Poitiers-eko kartzelan egona da eta gogoan du han emakume presoek ezin dituztela gizonezkoen azpiegiturak erabili: "Gizonek futboleko jolasteko aukera zuten eta guk ezin genuen patio gris txiki batetik atera". Nekane Txapartegi Zuricheko kartzelan sartu zuten 2016an eta han emakumeek modularik ere ez daukatela dio: "Emakumeen modulua ez, 'modulo berezia' izena zuen eta hor geunden emakumeak, trans pertsonak eta arazo psikologikodun gizonak: alegia, gizarte heteropatriarkal horretan sartzen ez direnak, espetxe barruan ere zokoratuak".

Maite Ortizek zortzi hilabete egin zituen 1987an Carabancheleko kartzelan, eta garai hartan egoera bestelakoa zela kontatu du: "Estatuko emakume preso politiko guztiak elkarrekin geunden.

ETakoak, autonomak, galziarrak, katalanak eta GRAPOkoak. Gure gorabeherak bagenituen ere, ongi eramaten ginen. Ni atara nintzenean dispersioa hasi zen. Politikoki diseinatu zuten kolektiboa zaitzeko eta kartzelak jada ez ziren gauza bera: emakume denak batera egotetik dispersatuta egotera pasa ziren, binaka edo bakarka, arau oso zorrotzekin. Aldaketa latza izan zen. Nire esperientziak ez zuen zerikusirik izan ondoren nire kideek bizi behar izan zutenarekin".

## EMAKUMEAK HEZTEKO ENPEINUA

Emakumeen kasuan kartzelak funtzio gehigarria duela azaldu du Txapartegik: "Espetxeak presoak txikitzeko sortu ziren, baina emakumeen kasuan korrekzionario moduan ere bai. Hezi eta zigortu nahi gaituzte, emakume bezala guregandik espero ziren rola hautsi ditugulako. Kartzelak guretzako duen mezua hori da: 'Zuek esaneko eta otzan bihurtu behar duzue'". Aranaldek Poitiersen bizi izan zuenetik berretsi du: "Uneoro sentitu nuen emakumeok zigortzeaz batera hezi egin behar gintuztela. Emakume errebelde asko psikiatrikora eramaten dituzte, oso zigortua dago emakume eredu hori". Txapartegik azaldu du kartzelak emakumeak "hezteko" erabiltzen duen bideetako bat, "bergizarteratze" izenpean lan oso markatuak ematea dela: "Ematen dituzten lan aukerak guztiz heteronormatiboak dira, patriarkalak. Badirudi etxeko andre onak izateko hezi nahi dituztela emakume presoak". Reimberge azaldu du justu zaintza lana



dela emakumeek kartzelan egin dezake-  
ten bakarra: "Emakume presoen lanak  
kartzelaren zaintza lanetara mugatuta  
daude, garbitzea zaintza lana baita". Eta  
gehitu du preso askok bizirauteko lan  
egin beharra daukala kartzelan, justu  
bera zanpatzen duen kartzela sistema  
zaintzen: "Migrantea izanik kartzelan  
bazaude, ez daukazu inor kafea hartzeko  
80 zentimo bidaliko dizkizunik eta lan  
egin behar duzu, dauden lanpostu horie-  
tan. Hilabeteko biziraupen kit bat ema-  
ten dizute, eta hortik aurrerako guztia  
nonbaitetik atera behar duzu. Kartzele-  
tan gehiengoa gizona da eta emakumeak  
gutxiengo gara. Lan produktibo bat sor-  
tzen denean gizonari ematen diete, ema-  
kumei geratzen zaiguna geratzen zaigu,  
eta dagoenean! Nora joango zara? Sukal-  
dera, kartzela garbitzera edo arropa gar-  
bitzeko gunera. Sistema zaintzeko lan  
hori kastigu bat da, zuk parte izan nahi  
ez duzun kartzela zaintzen ari baitzara!  
Baina ez duzu beste biderik, biziraupen  
kontua da".



**Maite Aranalde**

“Poitierseko kartzelan  
uneoro sentitzen  
nuen emakumeok  
zigortzeaz batera hezi  
egin behar gintuztela.  
Emakume errebeldea  
oso zigortua dago”

## **ESPETXE KANPOTIK EGITEN DEN ZAINZA, EMAKUMEEN ESKU BATIK BAT**

Presoaren zaintzak bi zutabe ditue-  
la azaldu dute mahaikideek: kartzela  
kanpotik egiten dena, eta presoan ar-  
teko elkar zaintza. Lurgatz talde femi-  
nistak antolatu duen ekitaldiak aitortza  
eta ikusgarritasuna eman nahi izan dio  
modu desorekatuan emakumeek kartze-  
la kanpotik betetzen duten zaintza fun-  
tzio horri. Aranaldek bere esperientzia-  
tik berretsi du: "Euskal preso politiko  
gisa eta emakume gisa, ni zaindu nauena  
ama izan da, emakumea. Kartzelari au-  
rre egiteko presoak dituen moduak izan  
daitezke irakurtzea, kirola egitea... eta  
horretarako beharrezko den guztia ere  
kanpotik sartzen dizute. Bisitak kanpo-  
tik antolatzen dizkizute... dena. Presoa-  
rentzako ezinbestekoa den zaintza lana,  
kanpokoentzako zama bat da: maitasun  
guztiarekin eta harro egiten dena, eta  
egiten jarraituko dena, baina hor dago.  
Segur aski zaintza hori gizonak egingo



GORKA RUBIO / FOKU

balute, beste ikusgarritasun bat eman-  
go zitzaien. Emakumeek egiten dute  
gehienbat".

Ortizek ederki daki zer den kartzela  
kanpotik zaintza lana egitea, izan ere,  
lehenik senarra izan zuen preso eta  
orain semea: "Kartzelatik irten ondo-  
ren, zaintzailearen papera tokatu zitza-  
idan. Pello (senarra) erbestean zegoen  
eta bera bisitatzeraz joaten nintzen  
hilabete pasatzen nuen berarekin. Ho-  
rretarako, gure alaba Virginia, nahiz eta  
oso gaztetxoa izan, denda zaintzen ge-  
ratzen zen nire koinatuarekin. Pellok  
hamaika urte pasatu zituen erbestean;  
ondoren, Espainiari entregatu zioten eta  
hamabost urte pasatu zituen kartzelan.  
Bisitak, paketeak, hilero bis a bisak...  
edozein egoerarako, ni nintzen errefer-  
rentea. Gure seme Oskarrek 18 urte da-  
ramatza barruan. Eta bere emazte Rosi  
da arduratzen dena bere eta bien alaba-  
ren zainketez. Hilabetero 1.100 kilome-  
tro egiten jarraitzen dugu. Bada garaia  
dispertsioa amaitu dadin".

Aranalderentzat, kanpotik egiten den  
zaintza kartzelan irauteko "ezinbeste-  
koa" da: "Ezagutu dut preso egonik  
kanpoko zaintza eta elkartasuna izan  
ez duen jendea eta aurrera egin duena.  
Baina iruditzen zait zaintzarik gabe ia  
ezinezkoa dela, gaizki irauten dela kar-  
tzelan". Horretan preso politikoen eta




**Katia Reimberg**

“Kartzelan ez  
dut bisitarik izan. Eta  
kartzelako nire lana  
lokutorio guztiak  
garbitzea zen! Kartzelak  
minik gehien duzun  
lekuan kastigatzen zaitu”

sozialen artean dagoen aldea handia  
dela azaldu du: "Preso politikoe-  
k duten babesa, herri oso bat eta borroka  
bat dagoelako da. Patioan ikusten nituen  
preso gehienek ez zuten hori, askotan  
ikusten nuen jendea bakarrik. Guk as-  
tebururo genuen bisita bat eta hauek ez

zeukaten bisita bat sekula!". Reimberg  
sortzez Brasilgoa da eta ez zuen borroka  
politikoak eraman kartzelara: "Kartze-  
lan egon naizen denbora osoan ez dut  
bisitarik izan, ezta bis a bisik ere. Hori  
gutxi ez, eta kartzelako nire lana kastigu  
bikoitza zen, zeren bis a bisak eta loku-  
torio guztiak garbitu behar nituen, eta  
presoak bisitetan ikusi, nik batere jasoko  
ez nuenean! Kartzelak min gehien duzun  
lekuan kolpatzen zaitu, kastigua kasti-  
guaren gainean ezartzen du".

Presoentzat bikote harremanak ba-  
bes handia izan ohi dira, eta Aranaldek  
azaldu du horretan ere ez dela berdin  
gizon edo emakume izatea: "Bikote ha-  
rremanei eustea askoz zailago izan dugu  
kartzelan egon garen emakumeok. Da-  
tuek adierazten dute askoz emakume  
gehiagok eusten eta zaintzen dituztela  
kartzelan dauden beren bikote gizonak.  
Emakume presoan artean argi dago, edo  
bilatzen duzu kartzela barruan dagoen  
mutil lagun bat, edo ahaztu. Txorakeria  
dirudi baina ez da. Barruan ere sentitzen  
dugu, bizitzen dugu, eta gai garrantzi-  
tsua da". Reimberg: "Kartzelan askotan  
ikusi izan dugu hori: gizona sartzen de-  
nean, emakumea hilero joaten zaio ikus-  
tera. Emakumea sartzen denean gizo-  
na desagertu egiten da, hasieran badoa,  
baina ez du irauten, bikote harremana  
bukatu egiten da".



Ekhiñe Eizagirrek  
Sarerentzat egindako  
*Poltsa bete kontu*  
dokumentala ikusiz  
eman diote hasiera  
mahai-inguruari. Bertan,  
presoen zaintzaren ardura  
daramaten emakumeek  
hitz egiten dute.



## PRESOEN ARTEKO ELKAR ZAINITZA

Aranaldek kartzela barruko elkar zaintza nabarmendu du: "Barruan ere elkar zaintza badago, eta kartzela presoan arteko elkartasuna, atxikimendua eta maitasuna momentuoro mozten, zapaltzen eta zigortzen saiatzen da. Barruan egiten dugun elkar zaintzak min handia egiten die". Ortizek ere kartzelan egindako laguntasunaren balioa azaldu du: "Nor bait momentu txarra pasatzen ari bazen, hor zeuden kideak zaintzeko. Kidetasun handia zegoen, horren oso oroitza pen ona dut eta esan dezaket kartzelan egiten den laguntasun harremana berezia dela. Komisariatik xixko eginda iristen zinenean, bost axola zitzaizun kartzelara joatea, komisariatik ateratzea zen nahi zenuen bakarra. Besteek besarkatzen zintuzten eta hori arindu handia zen". Txapartegik azaldu du 1999an torturatu zutenean berak ere osatzeko beste presoak izan zituela babes: "Nahiz eta dispersatuta egon, Soto del Realen beste euskal preso politikoeekin batera nengoen eta oso beharrezko izan nuen komisarian bost egun torturatua izan ostean kideekin elkartzeko eta osaketa egiten hastea. Beraiek ere antzekoa jasan izan zuten, eta haien artean babestuta sentitzen nintzen, zerbaiten parte, ulertua; konturatu nintzen ez nintzela tortura sexista jasan zuen bakarra, egitura oso bat dagoela emakumeon gorputza guda-zelai gisa erabili duena. Hor egiten diren harremanak betiko geratzen dira". Reimbergekin horrela azaldu du preso guztien arteko zaintza: "Kartzeletako egunerokoan erresistentzia txikiak egiten ditugu eta bizirauteko estrategia asko erabiltzen dira. Elkartasun handia dago, bakardade handia ere badagoen arren". Aranaldek kartzela barruko indarra agerian jarri nahi izan du: "Adierazi nahi dut sufrimenduaz eta zapalkuntzaz gain, kartzelan errebeldia handia dagoela, iluna da eta tristea baina badago bizirik mantentzen gaituen zerbait".

Txapartegik kontatu du kartzelaldi gogorrena Zurichen isolatuta edukitu zutenean bizi izan zuela, eta egoera horretan zaintza norberaren buruari eusteko moduak bilatzea dela: "Nola egin aurre bakarrik, egunean 23 ordu isolatuta egonik? Asilo politiko eskaera egiteko hitzez kontatu behar izan nintuen Espainiako komisarian jasandako torturak eta erabat "birtraumatizaturak" nengoen, torturen zauria irekita... Non heldu? Kirol egiteko aukerarik ez nuen, alaba besarkatzea ere debe-

katzen zidaten, nirekiko guztia zeukaten politizaturak eta kriminalizaturak, ezin nuen euskaraz hitz egin, ezta abokaturak deitu ere... Non heldu? Nola biziraun asmatzea zen eguneroko borroka, subjektu izaten jarraitzeko: lehen aldiz margotzeari eman nion. Neukan arma bakarra hitz egitea zen, eta ezin nuen telefonoz egin, paperean hasi nintzen, marrazki bidez edo poesiak eginez.



Maite Ortiz

“Komisariatik xixko eginda iristen zinenean, beste kideek besarkatzen zintuzten eta hori arindu handia zen”

## PRESOA AMA DENEAN

Aranaldek hitza jarri die kide preso askorengan ikusi duen egoerari: "Emakumea kartzelara sartzean, zaintzailea da kartzelan dagoena. Askotan umeak ditu, eta familiaren zutabea erortzen da. Hori ikusi izan dut emakume presoan artean, beraiek zaintzen zituzten pertsonak zaintzarik gabe geratzen zirela. Hori sufrimendu handia izan da emakume presoentzat eta bete-betean harrapatu ditu". Ortizek bere bizipenetatik kontatu du: "Ni atxilotu nindutenean, senarrak herbestera egin zuen eta gure alaba Virginiak 14 urte zituen eta seme Oscarrek 13. Nire ama Pilarren zaintzapean geratu ziren. Nire kezka zen horrek nola eragingo zien gure seme-alabei: nola egingo zioten aurre amonarekin bakarrik geratu beharri, beren aita herbestean eta ama kartzelan egonik. Baita ere kezkatzen ninduen nola egongo zen senarra, ez baitzen posible inolako informaziorik izatea. Oso une gogorrak izan ziren".

## Bertsoak

Publikoarekin batera bertso hauek elkarrekin abestuz eman diote bukaera mahai-inguruari.

Estribilloa:

Gizonei  
zaintzarako egin dei  
mila esker borrokatzen  
duten emakumeei!

Zer da estatuarentzat  
emakumeon gorputza?  
Torturaz nahi du txikitu  
ta kartzelan nahi du hutsa...  
Osatu, zutitu eta  
eman elkarri laguntza:  
gorputzetatik hasten da  
gure herriaren iraultza!

Umeaz erditu zara:  
bizitzaren aldarria!  
Laztanen gosea dauka  
bulararen egarria.  
Izan daiteke sasía,  
kartzela edo deserria...  
eusten dion gorputza da  
umearen aberria.

Gora gure amak eta  
gora gure amen batailak!  
Umeengandik urrundak  
kartzeletako kristalak;  
umeengandik urrundak  
migrazio hesien bailak...  
Ama denak dira onenak,  
egoerak dira zailak!

Elizak "xuxendu" gaitu  
plaza erdian kixkaliz  
ez garelako "andre onak"  
marmarrak kalean dabiliz  
ez gaituztela domatu  
ospatu dezagun berriz  
zer litzateke herri hau  
sorginengatik ez balitz!

Kapitalismoak dena  
pribatizatzeke arra!  
"nire terapia", "nire  
umeen partikularra"...  
bakarka ez gara iristen  
dugu elkarren beharra.  
Herriak zaintzen du herria:  
ume, preso edo zaharra.

Benetan al gara aske  
nahi kalean egon "ondo"?  
Beltza, euskaldun zein pobre  
beti susmagarri "txungo",  
marratik irten orduko  
bagaituzte eramango,  
kartzelak eraitsi arte  
ez gara libre izango!

Txapartegik ere bizi izan zuen alabaren-gandik bereizia izatea, 2016an kartzelan sartu zutenean: "Suitzan amatasunarekin oso gogor jokatzeko du estatuak, eta berehala kentzen zaio umeari ama ikusteko aukera, instituzioek dakitelako zer den ama ona izatea eta zer ez. Hori oso gogorra egin zitzaidan eta argi neukan ez nuela onartuko nire alaba zigortzea eta are gutxiago ni zigortzeko erabiltzea. Hori izan zen nire lehen borroka handietakoa, lehenengo hiru hilabeteetan debekatu egin zidatelako alaba ikustea eta besarkatzea. Ez nekien alaba non eta nola zegoen, eta kezka hori erabiltzen zuen kartzelak nire aurka: atxilotu nindutenean esaten zidaten ez banuen kolaboratzen, ez banuen beraiek nahi zutena egiten, alaba umezurtz-etxera eramango zutela".

Aranaldek presoan amatasunari lotutako beste min bat publikoki agertu du: "Ez da hitz egiten ama izan nahi eta ezin izan duten emakume presoek. Kideengan ikusi dut zer drama eta sufrimenduen, bai Espainiako kartzeletan, eta batez ere Frantziakoetan, orain gutxi arte ez zegoelako eskubiderik sexu harremanik izateko: beraz, Espainian zaila bazen, Frantzia ezinezkoa zen".

## ZAINTZA KOLEKTIBOA, ESPETXEAK ABOLITU ARTE

Preso guztien zaintza kolektiboa indartzeko deia egin du Txapartegik: "Euskal preso politikook badaukagu kolektibo bat, badaukagu herri bat eta Suitzan kolektibo feminista da nire gunea eta babesa, horregatik egin ahal izan dut aurrera, eta baita ere familia eta lagunei esker, beti etorri direlako Suitzara nahiz eta bisitak astegunez izan, horrek dakarren guztiarekin. Baina migranteen kasuan saretze kolektiboa falta da, emakume preso bakoitza indartzeko, kartzela sistema patriarkal kapitalista horri aurre egiteko eta ez sistema horretan lan egin behar izateko. Horretarako kolektiboki preso denek tresnak eman behar zaizkie. Nire deia hori da, guk jaso dugun babes eta kolektibotasun hori zabaltzeko deia". Reimbergekin zaintza kolektiboa zabaltzeko bidean hauxe proposatu du: "Ekintza egin nahi duenak, bada bat oso erraza eta txikia: gutuna idaztea inoiz gutunik jasotzen ez duten presoentzat. Animoak eman behar dira gutun horretan, 'aupa hi!' eta horrelako mezuak jarri. Manifestazioetatik Martutenera iristen ziren testuak niretzako idatzita



Nekane Txapartegi

“Migranteen kasuan saretze kolektiboa falta da, emakume preso bakoitza indartzeko, kartzela sistemari aurre egiteko. Euskal preso politikook jaso dugun babes eta kolektibotasun hori zabaltzeko deia”

baleude bezala hartzen nituen, horregatik esaten nuen 'ateratzen naizenean ongi-etorri batera joango naiz!'. Ez dut euskara ikasi baina ikasi dut 'presoak Euskal Herrira' esaldia. Testu eta orri horietan hartzen nituen animoak, horri heltzen nion. Berehala ekintzaren bat egin nahi duenak, hor dauka bat, idatzi gutun txiki bat: aldatuko ditu gauzak". Beretzat feminismoa da kolektiboki antolatzeko gunea: "Emakumeok daukagun espazio seguru eta konfiantzazko bakarra feminismoa da. Dolores Julianok salbatu dit bizitza kartzelan, mugimendu feministak bizitzak salbatzen ditu".

Ortizek gizarteari eskatu dio "presoak ez ahanzteko": "Elkartasunari eutsi diezaiozula, eta gutunak idatzi: preso batentzat poz handia da eskutitzak jasotzea, horrek esan nahi duelako pertsona hori zutaz gogoratu dela. Politikoei eskatu behar diegu presoan gaia etengabeko exigentzia izan behar dela".

Kartzela barruetan gertatzen denaren berri kalera ateratzea "ezinbestekoa" dela esan du Aranaldek: "Eta askotan ez da egiten. Euskal preso politikoen egiten da baina beste dena ez, berandu jakiten dugu Zaballan preso bat hiltzen

denean eta gehiegi isiltzen da gaia". Txapartegik azaldu du Zuricheko kartzelan 23 orduz isolatuta izan zutela eta egoera horretan kartzelako berri kanpora ateratzea izan zela bere borrokatzeko modua: "Zuricheko Lora irrati librearen bidez lortu nuen isolamendu harresiak etetea. Nik kanpora ateratzen nuen informazioa, irratiak zabaltzen zuen. Hori janaria zen niretzat eguneroko borrokarako, nik kanpora mezua emateko eta kanpotik barrura jasotzeko. Izan ere, nire familiak eta lagunek deitu zezaketen irratiari ni agurtzeko, elkartasuna adierazteko. Irratiak kanpoko munduarekin eta borrokaekin lotzen ninduen eta euskara entzuteko aukera bakarra ematen zidan. Migrante presoan kasuan irrati librearen tresna indartsua izan daitezke, kanpoarekin erlazio afektiboak mantentzeko, norberaren ama hizkuntza". Azaldu du orain irratsaio feministak egiten parte hartzen duela, bertatik presoan salaketei oihartzuna emateko eta elkartasuna adierazteko: "Batuetan joera dago zapalkuntzak hierarkizatzeke, eta nik zapalkuntza guztiak batera borrokatu nahi ditut eta batera askatu: klase, genero, identitate politiko... mugimendu feministak egin dezakeena hori da, horrelako ekimenak praktikara eramatea, eta preso bakoitzari tresnak ematea subjektu politiko izateko, espetxeak abolitzeko".

Horretan ados daude mahaikide guztiak: "Kartzelek ez dute lekuri izan behar". Reimbergekin gai horrekiko bere jarrera aldatzea azaldu du: "Kartzelak sistemaren barruan existitu beharko lukeela pentsatzen nuen nik ere, delituen bat egin zuten pertsonak eta pertsona txarrek kartzelan egon behar zutela. Egun batean zure burua ikusten duzu kartzela barruan. Kartzela sistemaren barruan aldatzen saiatzen zara eta 'bergizarteratzeko' egiten duzun lan guztiarekin zaplakoa hartzen duzu, 'bergizarteratzea' ez delako existitzen". "Bergizarteratzea" kartzela justifikatzeko erabiltzen den hitz polita dela azaldu dute, baina gezurra dela. Kartzela abolitzeak gizarteko hainbat egitura aldatzea ere eskatzen duela azaldu du Aranaldek: "Jendarte bat eraiki behar dugu kartzelak lekuri izango ez dutena. Horretarako kapitalismoa eta patriarkatua bukatu behar da. Eta justizia feministaz pentsatu behar dugu, kartzela ez dezagula tresna gisa erabili bortxaketan eta abarren aurrean". ●



# “Halloweenek uxatu egiten ditu arimak, Gau beltzak maite ditugunen arimak erakartzea du helburu”

“Hiru seme-alaba ditut eta horietako bati bihotzeko ebakuntza arriskutsua egin ziotenean, hurrei heriotza azaltzeko liburuen bila hasi nintzen. Aurkitu nuen guztia erlijioari lotuta zegoen, eta beti izan dut hori buruan, harik eta iaz argi ikusi nuen arte: Lezon dudak kafetegian ospatzen dugun Gau beltzarentzat pertsonaia bat asmatu behar genuela erabaki eta pertsonaia hori liburu baterako baliatzea, dena bat izan zen: zergatik ez egin heriotzari buruzko ipuina Gau beltzari tiraka? Urriaren 31ko magian sinestea izan daitekeelako heriotza goxatzeko modua: gau horretako festan guk ez dugu hildakoa ikusiko, baina berak bai ikusiko gaitu gu, eta sentituko dugu ondoan”, kontatu digu Edurne Mitxeok. Horrela jaio zen *Gau beltza* ipuina.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  EDURNE MITXEOK UTZIA

**D**uela ehun urte gertatu zitzaiona kontatzen digu Lur protagonistak ipuinean, baserri giroa, hildakoak eta Gau beltza uztartuz. Edurne Mitxeo da egilea eta Kepa Etxebarriaren marrazkiek laguntzen dute testua. Lezoko Udalararen babesari esker kaleratu berri duten liburuak umeei dolua erraztea du xede, besteak beste. “Sarri, bat-batean harrapatzen gaitu heriotzak eta etxe batzuetan agian ez dakite gaiaz nola hitz egin umeei; ipuin hau lagungarri izatea nahi genuke. Hurrei esan ohi diegu hil den pertsona lo geratu dela, edo bidaia luze bat abiatu duela... baina egia esan behar zaie, pertsona hori hil egin dela, bihotza geratu zaiola; kontua da goxo eta behar bezala esatea, eta horretarako bitartekoa izan nahi du

liburuak”. Saldutako liburu bakoitzetik, euro bat joango da Bihotzez Sortzetiko Kardiopatient Elkartera.

Gau beltza edo Arimen gaua aitzakia ona da heriotzaz mintzatzeko. Gero eta herri gehiagotan berreskuratu dituzte euskal ohitura zaharrak, Halloweenen indarraren aurrean. Hala, gero eta zabalduago daude gure arbasoen usadioak: arimen alde kandelak pizten zituzten eta kalabazak, erremolatxak edota patatak hustu, kandelak bertan sartzeko. Zentzua Halloween jaiaren kontrakoa dela azaldu digu Mitxeok: Halloweenek

uxatu egiten ditu arimak, eta Gau beltzak aldiz maite ditugunen arimak erakartzea du helburu, “horregatik pizten dira kandelak, etxerako bidean gidatzeko”. Azken finean, garai batean oso presente zegoen heriotza –bizi-baldintzak ez ziren oraingoak–, txikitatik ulertzen zuten bizitzaren parte zela, eta egun bat zuten arimetan pentsatzeko. “Gaur egun, noiz bizi dugu heriotza?”.

## HERRI GUZTIA INPLIKATUKO DUEN FESTA

Beste asmo bat ere badu ipuinak: herri mailako festa bultzatzea. 2016tik Lezon duen kafetegian ospatzen du Gau beltza Mitxeok, arrakasta handiz gainera, ume eta heldu ugari biltzen baitira urtero, baina festa herri guztira zabaltzea du buruan. Gaztainen bila joan, etxez etxe moztortuta janaria eskatu, gero gaztaina erre eta etxez etxe lortutakoa jateko elkartu, sutara mezuak bota... Horrela irudikatzen du eguna Mitxeok. “Haurrentzat sekulako festa da hau: moztortuta, gauez, litxarreak jaten... Zer gehiago eskatu daiteke?”.

Beldurra kudeatzeko gaua ere izan daiteke umeentzat. “Errespetua eta beldur pixka bat izatea ona da, baina gelditu gaituen ikara ez da ona, ez digulako aurrera egiten uzten, eta halakoetan garrantzitsua da egoerari buelta ematen jakitea. Pandemia hau oso adibide ona da, beldurrarekin dugun harremanaz gogoetatzeko”. ●



## EUSKALDUNAK AMERIKETAN ARTZAIN

# Amerikar ametsa amesgaizto bilakatu eta Aldude goibeldu zen 1949ko urriaren 27an

Ordura arte milaka gaztek egin bezala eta gerora ere berdin-berdin egingen zuten beste milakaren gisara, Paris-New York hegazkina hartu zuten Aldudeko hiru gaztek 1949ko udazken egun hartan. Etxeko pobrezia beharturik, Ameriketara artzain izateko bidea hartu zuten. Hegazkinak istripua ukan eta hil ziren (beste bi baxenabartar ere baziren 37 bidaiarien artean). Drama horretatik abiatu, Euskal Herritik Ameriketako Estatu Batuetara joan behar izan zutenen historia dugu erreportaje hau; XIX. mendean hasi eta 1950eko hamarkadara arte iraun zuen “odolustearena”.

## JENOFA BERHOKOIRIGGIN

**1** 949ko urriaren 29a Alduden. Goizean goiz jeikia zen Leon Arambel 17 urteko mutikoa, sasoiko lanari lotzeko. Lephederreko lepora zihoan uso ihizira. Etxeratu zitzaion Kaskaineko Bernard, oraindik gogoan duen ron usainarekin: “Jean-Louisen *aviona* erori duk”. Hitzak mozkorren bizkar ezarri zituen: “Put, hau mozkorra duk... Ezin sinetsi... baina egia baitzen”. 1949ko urriaren 27an gertatu zen Aldude goibelduko zuen ezbeharra: Paristik New Yorkera zihoan *Constellation* izeneko hegazkinak istripua ukan zuen Azoreetan eta barnean zituen hiru aldudar gazte zendu ziren –23 urteko Jean-Pierre Aduritz, 25 urteko Jean-Pierre Suquibide eta 19 urteko Jean-Louis Arambel, Leonen anaia zena-. Hegazkinean ziren beste bi baxenabartar ere, Buztintzeko 19 urteko Thérèse Etxepare neskame izateko xedez abiatua eta Donaitiko 38 urteko Guillaume Chaurront, hau ere artzain izateko asmoz. Orotara, 37 bidaiari, hauetan bost euskaldun gazte. Laugarren aldudar bat ere joatekoa zen, baina azken momentuan paper administratibo bat eskas ukanik ezin izan zuen hegazkina hartu.



Besoak zabalik hartu gaituzte Leon eta Maite Arambel senar-emazteek, drama horren oroitzapenak partekatuz eta orain duela zazpi hamarkadako Alduden kokatuz begirada: “Denak joaten ziren, etxe guzietarik. Tropak ziren etxeetan, hemen berean gu baginen bederatzi, auzoan dozena bat, Elgarte etxean bertze dozena bat, gain hartan hamazazpi. Alimaleko haur tropa zen eskolarako bidean”. Bis-

tan da, etxalde ttipiak izanki eta anitz zorpeturik, mutikoak Ameriketara artzain joatea zen erremedioa; neskentzat berriz neskato lana Baiona, Paris ala Bordele bezalako hirietan edota haurtzain herrian berean “oraindik haurrak zirela haurtzain” Maitek dion bezala. Pobre ziren –Leonek ederki irudikatzen duen gisara “ez ginen burran (gurina jaten) usatuak”– eta gaur egungo Hegoko



migranteen gisara, garaian euskaldunak ziren migrante; familia, herria, lagunak eta hizkuntza utzirik, bakarrik erbesteratzen zirenak, diru kotsia biltzeko esperantzarekin. “Jenerazioz jenerazio etxe guzietatik bazen norbait joana, eta hark pagatzen zituen etxeko zorrak; berak familia hazi orduko berriz zorretan zen baina haren haurra bazen berriz Ameriketara joana. Hemen ez da etxerik hori gabe goititu ez denik. Hiru herri horiek –Banka, Aldude, Urepele– kontrabandak eta Amerikak salbatuak dira”, kondatzen du Maitek. Far West edo Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) mendebaldera joaten ziren, artzain lanetan aritzeko.

Ondoko egunetan, Parisen gorpua identifikatu ondoan ekarri zituzten herri-  
ra –“osorik ziren, osorik baina erreak”–. Herriko etxean atxiki zituzten eta beilatze-  
ko aldudar gazteak trukatu ziren gau eta egun. Ehorzketetan, alimaleko jendea bildu zela gogoan dute.

Aitatxi aldudarra eta hogei urtez Ameriketako artzain egondakoa duen kazetariak orduko giroaz eta emozioez gehiago jakin nahian luzatu galderei labur erantzuten diete Leon eta Maitek, drama drama delako eta hitzak jartzea zaila delako: “Ahal bezala bizitu genuen. Beharko”. “Ez baita kanbiatzen ahal, aisa ala neke, behar duzu jasan” gehituz ematen dio senarrak hasi esaldiari segida Maitek.

Giroa irudikatzen lagundu dezakete ordungo egunkariak. Frantzia mailako komunikabide handiak ere Aldudera be-


gira jarri zirelako. Bertaratu ziren kazetari eta argazkilariak. Ez baitezpada migrante pobreei aipamena zor zaielako, baizik eta hegazkinaren istripuan bestelako jendea bazelako. Hain zuzen, istripuan bizia galdu zuten ere Marcel Cerdan nazioartean ospe handia zuen boxeolari ezagunak eta Ginette Neveu arrabitalari famatuak. “Jende handiak baitziren delako Cerdan eta Ginette, gu izan bagina bakarrik, ez gintuzten hainbeste aipatuko, isilago pasako zen”, Maitek ohartarazten duenez.

“Imajina ezazu, dirudunen artean artzain pobreak batzuk! Horrek kuriositatea sortu zuen!” dio bere aldetik ere Mikel Erramuzpe aldudarrak, migrazio olatu horren ikertzen ibilitakoak. Kanalduderen webgunean kausitu daitekeen *Sorlekua utziz geroz* dokumentalaren egilea da. Garaian ez zelako gaur egun bezala hartzen hegazkina, dirudunek bakarrik har zezaketelako. Funtsean, joateko txartela nagusiak pagatzen zien eta urte batez kitorik aritu behar izaten zuten lanean, bidai-saria ordaintzeko. Urtean behin pagatuak ziren. Lekukotasunen arabera, paga ezberdinak ageri dira –hilabete-  
ko 100 dolar, 250 dolar,...– baina egindako lanaren dorpertasuna kondutan harturik ez zen lansari duina.

Frantziatik jindako kazetariak beste mundu bat kausitu zuten mendien artean, seguruenik haien begietan “arkai-  
koa”: zendu baten ama, hantxe, supazter xokoan gaztainak erretzen ari, emazteak mantaleta beltz handiz estalirik ehorzketetan, haien begietatik Frantzian baina hizkuntza arrotz bat entzungai...

Hortik gutxira, dolua egiteko bidearen erdian gorpua berriz hilerritik atera eta eraman behar izan zituzten Pariser, Ginette Neveu “handiaren” familia ez zelako segur bere gorpua zutenik. Leon igan zen Parisera gorputza ezagutzeko lanera. “Jende handiak han ziren beren abokatuekin, guk ez genuen sostengu bat. Zinturatik ezagutu nuen anaia zena”. Drama horrek markatu zituen xoko hartako guziak eta neurri batean, euskaldunen emigrazioaren errealtatea goiko klaseei ohartarazteko balio izan zuen ere. *La loi du Pays Basque: s’expatrier* (Euskal Herriko legea: erbesteratzea) gisako erreportajeak plazaratu zituzten komunikabide handiek. “Istripuaren berri banuen, beti kontatzen zen etxean”, oroitzen du Erramuzpek, bere aita AEBetan egona zuen hark ere, istripua aitzineko hilabeetan joanik.

Leonek ere hartu behar izan zuen hegazkina, istriputik urte batera. Beldur ote



zen galdetu eta “dudarik gabe, baina zer nahi duzu...”. Nabardura ttipi bat egin nahian, ondokoa gehitzen du irriz Maitek: “Ez baitu erraten... Erraten zuen gibeleratekoan, hamabi urteren buruan, Parisen jausterakoan efektu egin ziola, orduan harakoan ere, hamabi urte lehenago pentsatzen dut...”.

Hamabi urte pasatu zituen han, 5.000 ardi zaintzen, 15.000 zituzten hiruren artean. Bere ardiak ere bazituen, 400 bat eta horri esker lortu zuen sos pixka bat egiten. Lan dorpea eta baldintza gogorrak, baina “arrunt laketua”. Oroit du nola hozgai-lua ekarri zion hortik bospasei urtera nagusiak: “Bizia aldatu zidan! Biziaren erdia zen hori!”. Finitu zen astean behin hornituri-ko jatekoa beroagatik biharamuneko us-teldurik bota beharra. “Biziaren erdia”, nola ez. Zakurra zuen konpainia bakarra: “Bakartasuna ez zitzaidan zaila, zaharrek erraten zituzten eleketa aritzeko zakur-rekin. Oroit naiz behin Ganixek nahasi zituen bere ardiak beste auzoarekin eta goizik joan nintzen haren kanpora, erre-kara oinez, isil-isila eta zakur tzarrak ni ezagutu! Puf, ze besta! Hamar lagun atze-man banitu bezala izan zen!”.

Bizia ez zuten erraza han, alta. Udako hilabeteak mendi gaintan pasatzen zituzten, larre berdeetan, oihal etxean lo eginez, eta negu dorpe eta hotza berriz beheko lurretan, guneka desertuan. Urte-ro, 600 bat kilometroko transhumantzia egiten zuten, zaldiz leku batetik bestera. Karaban ttipi bat zuten etxe gisa; doi-doia ohe bat, azpian puskak montatzeko tiran-tak, mahai ttipi bat, furnegoa eta besterik ez. *Treinta* bat ere, pistola bat, aitzine-koak ala nagusiak utzia, eta hamabi ur-teetako momentu beldurgarriean ba-liatu behar izan zuena: “Bost mutiko tzar” agertu zitzaizkion eta tiroa bota zuen, “jende bati tiratzea ere halako bat da... baina bakarrik zarelarik arma duzu de-fentsa bakarra”. Alde egin zuten bostek eta han segitu zuen, berriz etorriko ote zi-renaren beldurrez. Ondoko gauean itzuli ziren eta poliziari aipaturik, inguruetan gordeturik, arrastatu ahal izan zituzten mendekatu aitzin. Hau izan zuen beldu-rrik handiena, beste beldurren artean –hartza hurbil-hurbil sentitzeak sortu ikarak, zaldia lohi lodian sarturik, handik ezin ateratzearekin azken orena heldua zitzaiola pentsatu izana, ala beste-. Ba-kardadeaz gain, eguraldi bortitza eta in-

guruko abere basen –hartzak, koio-teak, crotalus sugeak, migalak...– mehatxua ere zutelako eguneroko ogi.

Hamabi urteren buruan itzuli zen Al-dudera. Zaila izan zitzaion, ez zuelako nahi sartu. Gainera herrira heldu eta la-gun guztiak joanak zitzaizkion Amerike-tara: “Jitean ene lagun guziak faltan...”; “baina hau atzeman bainuen”, dio irriñoa bisaian, Maite erakutsiz. Herriko gazteei sos pixka bat eman zien –“Pierre Arre-txek errana zigun Ameriketatik jitearekin gazteei eman behar zela”–, eta horgoari lotu zen, hor ere artzain.

### “ODOLUSTEA”

XIX. mendearen lehen partean hasi eta XX. mendeko 50eko hamarkadara arte iraun zuen AEBetarako migrazioak. “1956an sortua naiz eta emigratu beha-rrik ukan ez zuen lehen belaunaldia gi-nen”, dio Erramuzpek. Bigarren Mundu Gerraren biharamunean *Les Trentes Glo-rieuses* edo Hogeita hamar Loriotsuak ga-raia zen, hazkunde ekonomikoa eta bizi baldintzen hobekuntza ekarri zuena. Gai-nera, “eskolatuak” ere zirela dio eta hori izan zen aldaketa handia, ordura arte ofiziorik ez ikasirik, gehienek migrazioa zutelako erremedio bakarra. Maitek argi du: “Hemengo burgesek ez zuten baitez-pada nahi jende ttipia eskola zedin, zeren eta horrela apalago zeukaten jendea eta orduan gehiago baliatzen ahal zuten”.

Adrien Gachiteguy apezak lan han-dia egin zuen eskolatzearen inportan-tziaz ohartarazteko eta euskal herriek bizi zuten “odolusteaz” ohartarazteko. 1955ean argitaratutako *Les basques dans l'Ouest Américain* (Euskaldunak

Mendebalde Amerika-rraan) liburuan datu bilketa handia egin zuen. “Egia gordinki erran behar badut, euskalduna Kaliforniara joan da bere bizia arriskatzera, amerikar bakar batek ere nahi ez zuen lan bat egitera, justuki lan krudela zelako” ondorioztatu zuen. Gachiteguyren kalkuluei segi, artzain joandakoen %3 zen aberastu, beste %15 lan dorpea egiten segituz bizitzeko hei-na kausitu zuen eta beste gehiengoa justu-justu zorraz ordaintzeko heinarekin itzuli zen Euskal Herrira. Zifra inportan-te bat gehitzen du ere, gutti aipaturikoa: %20 desagertu zen –istripuz, suizidioz edota bazterketa sozialagatik–.

50eko hamarkadan sortu zituzten la-borantza eskolak Ipar Euskal Herrian eta laborari izatetik “laborari eskola-tuak” izatera pasa ziren herriko gazteak. Laborantzaz gain, bestelako ofizioak ere ikasteko bidea ireki zen. Nekazaritzaren modernizazioa ere burutu zuten. Gaur egungo begiradatik eta hartu zuen bi-deagatik kritikagarria baldin bada ere, ordungo errealitatean aldaketa bai-ko-rrak ekarri zituen modernizazioak –bai-ko-rrak eta beharrezkoak–.

Zenbatek herria utzi behar izan zu-ten jakitea neke zaigu, zifra zehatzak es-kas izanki. Hala ere, horra datu batzuk Gachiteguy apezak deitu “odoluste” hori irudikatzeko: 1876an sei milioi ardi ziren Kalifornian eta 1900ean artzainen bi he-renak euskaldunak ziren; 1.500 bat ziren Ameriketara joan 1945 eta 1952 urteen artean, gehienak baxenabartarrak izan-ki eta 1950etik goiti urtero 200ek zuten emigratzen Hego Euskal Herritik. Asun Garikanok idatzitako *Far Westeko Eus-*







kal Herria obra mamitsuan ere baditugu datu zenbait: "Douglassen eta Bilbaoren datuen arabera, 1832tik 1907ra 100 mila pertsona inguruk utzi zuten Iparraldeko Euskal Herria, kopuru itzela kontuan hartzen bada garaiko populazioa ez zela 120.000 biztanletik gorakoa". Adibidez, 1907 urte bakarrean 3.500 iparraldetarren eta biarnotarren izenak ageri dira bidaiari-zerrenda ofizialetan. Bistan da gehiago izan ziren, Garikanok zerrendatu arrazoinengatik: emigratzaile ilegalak ere bazirelako; abiatzerakoan erregistro zehatzik ez zelako egiten; helmugan atzeritarren izenak gaizki transkribatzen zirelako eta gainera, euskaldunen datuak frantsesen eta espainolen datuetan sartzen zirelako.

Aldude eta inguruko herriek zuten erbesteratzea gehien pairatu: Gachiteguyren datuei segi, 1862 eta 1865 urteen artean, Aldudeko 18 urteko gizonen %87k emigratu zuen Ameriketara. Alduden berean bazuten Ameriketara artzain izateko prozedura administratibo guztiaz arduratzen zen pertsona: Leopold Monlong. Pasaportea ukaiteko lan administratiboak, hegazkin txartelaren erostea, AEBetara heltzea eta nagusiaren atzemate lana, hango aroari egokituriko arropen erostea; hots, pagatuz gero dena bideratzen zuen Monlongek. Interprete lanak ere egiten zituen hegazkina hartzeko momentuan, gehienetan frantsesa ez zutelako mintzo aldudar gazteek. Laguntza handia zuten hori joateko zutenek, baina Monlongentzako ere dirua egiteko bide emankorra izan zen.

### "GURE HISTORIAREN PARTE DA"

"Gure historiaren parte handia da Ameriketara egondako artzainena, izugarri inportantea da belaunaldi hauek bizi izan dutena ezagutzea" Erramuzperen usteetan. Abisua luzatzen du aski fite: "Kasu egin behar da, kluxeetan erortzea biziki erreza delako". Gehitzen duenaz, "artzain bezain bat bizipen bada". Bistan denez, nekea eta bortitza zen hangoa, eta hori ez du ukatzen, baina argi utzi nahi du ez zela bakarrik errealtate hau: "Batzuk partitu ziren hemen ez zirelako ontsa, hemengo ez zutelako suportatzen" eta harat heldu eta "libertatea atzeman zuten", gogorra izanikan ere, liberekin bat.

"Emakumeak ere joan ziren Ameriketara" kapitulua kausitu dezakegu Garikanoren liburuan, isilean atxikitako errealtate horren berri emanez. "Ameriketako emigrazioaren hastapenetan, Mundu Berrirako bidea hartzen zuen euskal emigrante ohikoa 15 urtetik 25era bitarteko gizon ezkongai zen. Baina ondorengo urteetan emakumeak ere hasi ziren bide bera hartzen aurrez joandako ahaide batek edo herriko batek deituta edota, besterik gabe, iragarki batek animatuta. Gizonezkoen kasuan bezala, arrazoi ekonomikoak zirela-eta ausartzen ziren mundu ezezagun baterantz abiatzera. Baina beste bizimodu bat probatzeko gogoak ere bultzatzen zituen, emakumeentzat hain estua eta aukera gutxikoa zen garai hartako Euskal Herrian".

*Paroles de bergers, du Pays Basque au Far West* (Artzainen hitzak, Euskal

Herritik Far Westera) liburuan ere aipatzen ditu Gaby Etxebarne aldudarrak. Kontatzen du nola liburua idazteko elkarrizketa lanetan ari zela, artzain egondako baten emazteak ondokoa ohartarazi zion: "Zergatik bakarrik gizonekin juntatzen zara? Guk ere (emazteok) ezaugu dugu erbestea eta Far Westeko bizi gogorra. Gure istorioek ez zaituzte interesatzen? Bidai agentziek eta idazleek gizonei buruz idatzi dute, joaterakoan ala itzultzerakoan gizonak hartu dituzte argazkitan... Gutxi dira gurekin oroitu direnak!". Oharra egin ziona Graciela Ospital baigorriarra da, Marie-Jeanne bere

lagunarekin orenak pasatzen zituenak Ameriketaz mintzo; egun batez agentzia bat kontaktatu zuena, lan kontratu bat atzemateko gogoz jada Ameriketako Montana estatuan instalaturiko emazte euskaldun batekin harremanetan jarri zena. Azkenean, hegazkin txartela erosteko hautua eginik, Marie-Jeannekin batera 1951n Ameriketara abiatu zen. Neskame lanetan hasi zuten bizi amerikarra, paga ttipi baten truke. Gosea pasa zuten, baita gauak negarrez ere, herrimina eta bakardadeagatik. Baina poliki-poliki, lanez eta nagusiz aldaturik, bizi gogorra arindu zitzaion, autonomia eta alaitasuna irabaziz. 1959an itzuli zen Baigorriara lanean zebilen te-saloian ezaguturiko artzainarekin ezkontzeko. 1964an sartu ziren behin betikotz Euskal Herrira: "Hau da ene historia, AEBetara emigratu zuten emazte anitzen historiari eite duena".

Historia egiten duten milaka istorio horiek Historia liburuetan ez badira idatziak ere, hori dira. Eta, Far Westeko zuhaitzak dira nonbait liburu. Hain zuzen, eremu zabal hauetan artzain zirela, barneko enborretan ganibetarekin zizelkatzeko ohitura zuten euskal artzainek, seguruena istripuan hildako lau artzainek eginen zuten gisara. Milaka eta milaka hitz, euskaraz anitz, gehienak 30eko eta 70eko hamarkadaren artekoak eta zaharrenak 1890eko hamarkadakoak. Gehienik zizelkaturiko lau hitzak berriz hartzen dituen oroitarria ezarri zuten Alduden 2007an. Hauek dira lau hitzak: AMA, ETXEA, HERRIA eta MAITEA. Bai, irakurle, hitz bakar batez mundu bat deskriba daiteke. ●

# “Independentziatik gertuago gaude, baina oraindik urrun”

*Euskal matxinada. Genealogia eta egungo eztabaidak* (Txalaparta) lana kaleratu berri du Andoni Olariaga Azkarate Iratzar fundazioko kideak. ‘Koaderno’ mamitsu baina irakurterraz hori Iratzarrek eta Txalapartak elkarlanean bultzatzen duten Iparrorratza bildumaren parte da. Eztabaida eta hausnarketa politikoa bultzatzeko erremintak sortu nahi dituzte. Liburu honekin, matxinada berri baterako osagaiak proposatu nahi ditu Olariagak, 1950eko hamarkadaren hondarrean piztu eta 60 urtez luzatu zen “euskal matxinadaren” irakasgaiak oinarri.

 ZIGOR OLEAGA  DANI BLANCO

## **Zeintzuk dira azken “euskal matxinadaren” gako eta ezaugarri nagusiak?**

Lehenbizikoa, belaunaldi etena izan zen. Belaunaldi berriak ordura arteko abertzaletasunaren mugak gainditu eta nazioarteko korronteak entzun nahi zituen –Kuba, Txina, Aljeria, Vietnam...–, Euskal Herrirako egitasmo askatzaile propio eta integrala sortzeko. Herrigintza prozesu kontrahegemonikoa piztu zen, kuestionatu zituen estatuen hegemonia eta abertzaletasuna ulertzeko modu zabalduena, EAJk ordezkatzeko zuena. Euskara batua, ikastolak... Nazioegintza-estatuegintza-herrigintza prozesu hirukoitza abiatu zen.

Matxinadaz hitz egiten dut baina matxinadez ari naiz, gauza guztietan ez zeudelako ados askotariko mugimendu zabal horretaz. Beraz, hor ez dut soilik ezker abertzalea sartzen. Anarkistak edo antimilitaristak ere egon dira, adibidez. Elkarlanean denek parte hartu zuten estatuei eta EAJri egindako in-

pugnazioan; barne gatazkar eta bazterketekin, jakina. Hala eta guztiz ere, txundigarria zen matxinada horren heterogeneitatea.

## **“Interludio” bezala definitzen dituzu 80, 90 eta 2000ko hamarkadak, zergatik?**

Gauza asko aldatzen direlako: langile klasearen zentraltasunaren galera, oso herri gutxitan mantentzen dira borroka armatuak, Berlingo Murruaren erorketa, dorre bikien aurkako erasoa eta kontraeraso antiterrorista... Fukuyamaren “historiaren amaiera”-ren sentsazioa errotzen da, kapitalismoarekiko alternatibarik eza, Latinoamerikako prozesuek maila batean pitzatu bazuten ere. Hori guztia eta gehiago da interludioa: errealitatea aldatzen da, berandu egokitu gara eta hor harrapatu gaitu, bi munduren artean.

## **“Orduan ezinezkoa zena (independentzia) posible da egun”,**

## **diozu zikloaren emaitza laburbilduz. Espainiako Trantsizioan edo Lizarra-Garaziren garaian baino posibleago?**

70eko amaieran ETak ondorioztatu zuen independentzia ez dela posible, baldintza subjektiboak oso kontra zeudelako. Nazioegintza eta estatuegintza prozesu bezala ulertuta, askoz hurbilago gaude orain, lehen aldiz Nafarroan, Ipar Euskal Herrian eta EAEN egitura instituzional bana dagoelako, adibidez. Hori gutxieste zentzugabea da.

Katalunian gertatu zena: independentzia aldarrikatzen dute, baina ez dute instituziorik hori errealitate egiteko. EAEN edo Nafarroan estatu egitura batzuk baditugu, nahiz eta estatuak edozein momentutan kendu diezazkigukeen. Guk kudeatzen ditugu zergak, adibidez. Eta hori ez da oparitutako zerbait, baizik eta estatuei lapurtutakoa. Gertuago gaude, beraz, baina oraindik urrun. Beste ziklo luze baten aurrean gaude.





ANDONI  
OLARIAGA  
AZKARATE



**Ez dago azterketarik borroka armatuaren bilakaeraz, lorpenez eta galerez. Ezker abertzalearen ibilbidean izan duen zentralitatea kontutan hartuta, etorkizuneko matxinadarako irakasgaiak ateratzeko ez al da ezinbestekoa?**

Hori egia da. Lehenik eta behin, ez dut egiten horretaz hitz egiteko aukera legalik ez dugulako. Bestetik, jendarteari hitz egin behar zaio orain, eta oraindik biktimen, erreparazioaren... ajean sartuta gaude. Baina eztabaida hori egin beharko da.

Jendarte aldatuz zihoan, bazegoen intuizio bat, baina ez genuen garaiz garatu. ETA amaitzean jendeak lotura es-tua zuen ez hainbeste borroka arma-tuarekin, baizik eta matxinada horren identitateei. Mundu sinboliko oso bat, mila zatitan puskatu zen. Aldaketa hori egin behar zen, baina etxe-ko lanak egin gabe zeuden eta dena pilatu zitzaigun. Gai-nera, desdemokratizazio prozesu batetik gentozen, 2008ko krisiarekin batera gatazka soziala areagotu zen, eta harrapatu gintuen bakeaz hitz egiten (eta erai-kitzen). Kontrako norabidean doazen bi prozesu.

**Sistema demokratikoa deslegitimizatuen zegoen garaian, borroka instituzioetan eta bide demokratikoetan zentratzeko apustua.**

Erabat. Baina egin beharra zegoen, eta kontraesan hori jan. Denbora histori-koak horrela harrapatu zaitu, hori ezin duzu konpondu, hortik ez dago onik ateratzerik. Aitzakia eman dezake, baina azalpena da.

**Klase kategoriaren inguruko eztabaida bero dago. "Marmotaren eguna" bizi dugula diozu.**

Belaunaldi bakoitzak eztabaida histori-ko propioa egin behar du. Gurean, belau-naldi berria dator ilegalizazioen hamar-kadaren ostean, transmisiorik jaso ez duena eta gatazka armatua ezagutu ez duena. 60ko eztabaidak berriz agertzen hasi dira: askapen nazionala nola uler-tu, klase borroka, borroketan hierarkia egon behar duen ala ez...

ETAren V. Asanbladan erabaki zuten nazioa zela ardatza. Klasea zela ardatza ziotenek, edo estatua zela markoa, eus-kal iraultza ukatzen amaitu zuten. Gaur

arrisku berdina dago, baina euskal ma-txinadak utzi du arrastoa: euskaraz hitz egiten da, Euskal Herria hartzen da *de facto* marko bezala, eta abar. Gaur egun hori diotenei espainolismoa leporatu diete, baina hori astakeria da.

Feminismoaren interpelazioa hor dago, eta korronte marxista jakin ba-tek modu negatiboan erantzun dio, esa-nez zentralitatea klaseak duela, klaseari esanahi zehatz itxia emanez --zeren eta klase kategoriarekin guztiok identifi-katu gaitezke-. Berriki aurkeztu dute emakumeen erakunde marxista bat, eta feminismo hitza ez dute behin ere aipa-tu. Adierazgarria da.

**Hirugarren eta azken atala propositiboa da. Matxinada "dugun Euskal Herritik, eta ez nahiko genukeenetik" eraiki behar dela diozu. Zer herri dugu?**

“

**Epe luzeko ziklo bat behar dugu, eta horretarako beste erregai bat”**

Euskal Herria aurrerakoia da baloreetan; kontserba-doreagoa kudeaketa ere-duan --Horregatik irabaz-ten dute EAJk, PSNk eta UPNk, berdin Ipar Euskal Herrian ere --.

**Aldarrikatzetik eraikitsera pasatzea proposatzen duzu.**

Orain arte mugimendu aldarrikatzailea izan gara, aitortza eta autodetermina-zioa ardatz. Baina inork ez gaitu aitor-tuko, eraiki behar dugu. Jendeak *Bue-nafuente*-rekin egiten du barre, eta ez *Barre Libre*a-rekin: hor ez gara nazioa. Ez da inori ezer eskatzea baizik eta zure kabuz hartzea. Instituzioetan, EHU edo UPNAn eta Eitbn egotea, edo poliziaren eztabaidari heltzea. Hori ere bada bu-rujabetza.

**Zer toki dute horretan herrigintzak, kaleak, herri mugimenduek?**

Ez dakit. Batzuen tesia da hori ahuldu dela, eta agian ez zaie arrazoirik falta, beste gauza bat da horren zergatiak. He-rri mugimenduek ikasi behar dute Bil-duk muga batzuk dituela; eta Bilduk ika-si behar du eskertzen egurra jasotzea. Desadostasunen adostasuna lortu behar da aurrera egiteko, eta ez dakigu: kriti-koa beste aldean jartzen dugu, inklu-so gure artean.

**Kontraesan baztertzailleetara eta penduluaren mutur batetik bestera aldatzera ohituta gaudela idatzi duzu --adostasuna vs**



**konfrontazioa; instituzioak vs herri mugimenduak...-- baina kontraesanak onartu behar ditugula. "Akordeonismoa vs konfrontazionis-moa". Sinpletzen dugu, baina hori baino konplexuagoa da. Katalunian, esatera-ko: badira kontsultak, akordioa direnak, baina konfrontaziora daramate. Kontua da akordio edo konfrontazio jakin bakoit-zak zer sortzen duen.**

EAJrekin berdina. Lehen ezinbes-tean; orain PSOE eta Podemos eta pun-tu? Akats bera da. Bagenekien zer den EAJ. Baina orain pendulazoa egitea eta esperantza guztia fronte sozial batean jartzea... probatuko da, baina hor mugak egongo dira ardatz nazionalean. Asmatu behar da zer edo zer berria, eta metafora berriak ere: Maltzagak ez dio ezer esaten jendeari jada.

**Aurreko zikloa itxi zenetik 10 urte joan dira. Zer balorazio egiten duzu?**

Tentsio batzuk birpentsatu behar dira. Jendartera moldatu edo jendarte al-da-tu ideia horretan, esaterako. Bilduk pentsa lezake, "gingo dugu estatuak exijitzen digun iraganaren irakurketa eta horrela gizarteak ondo ikusiko gaitu". Errorea. Tentsio hori badago, eta egon li-teke irakurketa hori egiteko tentazioa. Instituzioekin berdin. Herri mugimen-duek senti dezakete desoreka handia da-goela instituzioetara, nik horren aurrean diodana da: mobilizatu, egin, ez geratu esperoan.

Bestalde, Kataluniakoa kopia-tzen saiatu gara: egin dezagun autogobernu ponentzia bat, dugun berdina bada ere, gero estatuaren ezetza etorriko da eta orduan jendearen haserre. Baina gi-zartea ez dator atzetik. Katalunian beste





ezaugarri batzuk zeuden. Han apurtu da sinesmen bat estatuaren onberatasunarekiko. Hemen sinesmen hori ez zegoen, beraz, ezin da apurtu. Estrategia hori berrikusi behar da, argi eta garbi.

**Presoak iraganeko matxinadaren ondorio dira, baina preso daude, egoera gordinean...**

Tentsio horretan mugitu behar dugu. Min handia dago. Irakurketa politiko "neutral" batean esango nuke presoak beti egongo direla, eta presoan gaian zentratuz gero giltza estatuari ematen diozula. Nagusiki prozesu independentistan zentratzen bazara preso berriak sortuko dituzu, baina korapilo horrek askatuko du presoena. Baina noski, min asko dago, preso gaixoak, senideak... eta horri kasu egin behar zaio.

**Matxinada berria proposatzen duzu. Erradikaltasuna galdu izana leporatu diote batzuek ezker abertzaleari, kanpotik zein barrutik.**

2011n erradikaltasunaren espazioa neurri batean utzi zuen ezker abertzaleak, osotasunari inpugnazio bezala ulertua. Korrante marxista batzuek eta, batez ere, feminismoak okupatu dute. Eskerrak Euskal Herrian burujabetza prozesu feministagoa izateko aukera gehiago dugu horri esker. Mugitzera behartzen gaitu, geldoegi goazelako interpelazio horri erantzuten.

Feminismoari ez, baina marxismo itxi horri esango nioke klase erretorika erradikalena ez dela politika erradikalena. Erradikalena da asmatzea irakurketa

koiuntural egokia egiten. Ez gaude egoera aurreiraultzaile batean, sentimendu nagusiak beldurra eta ziurgabetasuna dira, eskuma espazio asko irabazten ari da. Gaur egun, adibidez, 80ko hamarkadako programa sozialdemokrata bat, publikoaren defentsa egiten zuena, iraultzailea da, talka bortitzera eramaten zaituelako.

**Borrokak artikulatzea klabea dela diozu**

Kristoren gatazka dugu Euskal Herriaren zatiketarekin. Askatu genuen korapilo bat esanez: 'lehenbizi goazen apurtutako piezak elkartzera'; baina hor estatuak zuen beti giltza. Jendearen pertzepzioa da Nafarroa, EAE eta Ipar Euskal Herria lurralde ezberdinak direla, hortaz asmatu behar dugu prozesu ezberdinez osatutako Euskal Herri mailako prozesua. Nola izan nazioa hor? Joseba Sarrionandiak eman du klabea: lehenik eta behin kontzientzia behar da. Non ez gara nazioa? Eremu horietan aldarrikatzetik egi-tera pasa behar dugu. Horren sinplea eta horren konplikatu.

Erabakitze eskubidea erradikala da askok kontrakoa pentsatu arren: zuk sortzen dituzu prozesua eta baldintzak, inori baimena eskatu gabe.

**Eta nola eraiki hori?**

Epe luzeko ziklo bat behar dugu, eta horretarako beste erregai bat. Erronka berriak ditugu euskaran, unibertsitatean, hezkuntzan, lan munduan... Inori ezer exijitu gabe egin dezagun gure plan integrala, elkar hartuta herri mugimenduak

eta instituzioetan lanean ari direnak, kristoren erronka baitugu herri bezala. Klase gatazkak jarraituko du, baina ez dakigu ziur herri izaerari eutsiko diogun, horren kontzientzia izan behar dugu. Nazio gatazka izugarria dugu, pena ematen dit gizartearen sektore batzuek horretaz ez direla ohartzen ikustea.

**Injustiziak nolabait "objektiboak" izan daitezke, baina horiek ikustarazten dituzten gatazkak sortu egiten dira. Nazio gatazkak presentzia handia galdu du.**

Bai. Horregatik diot, beste ziklo bat, gatazka sortzen duena. Gatazka batek zentroa hartzen duenean eztabaida guztiak zeharkatzen ditu, feminismoak egin duen bezala. Hortik agian batzuen deserosotasuna, zentraltasuna galdu dutelako. Jada ez dago garai bateko lidergotza politikoaren modukorik, eta hori ona da, horretara egokitzen kostatzen ari zaigu, ordea, baina ari gara pixkana.

**Sortuk onartuak ditu konfrontazioa eta desobedientzia gatazka sortzeko erreminta gisa. Uste duzu garatu dituela?**

Ez hainbeste zentzu klasikoan. Egon gara konpondu nahian presoena, zubiak, berradiskidetzea... Noiz eta alderdien eta politikaren deslegitimazio garaian. Konfrontaziorako baldintzak sortu behar dira, ordea, eta horretan ibili da Sortu. Orain, pandemiarekin eta eskuin muturraren oldarraldiarekin, ondo asmatu beharko da gizartearen taupadak irakurtzen -berriz ere gizartearen kontrara harrapatu ez gaitzan-, konfrontaziorako momentu egokiak topatzeko. ●

“  
**EAJrekin lehen  
ezinbestean orain  
PSOE eta Podemos  
eta puntu? Akats  
bera da”**



# Emakume baserritarrek erabakitze- eskubidea dutenean haien autoestimua hobetu egiten da”

**CAMILA RECALDE, ARGENTINA**

**ABORTATZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO MEDIKUA**

Camila Recalde Argentinako Cordobako nekazari mugimenduko partaidea da, MNCI Somos Tierra koordinadorako kide. Horrez gain, landa eremuko ospitale publiko bateko medikua da eta orain dela gutxi hasi dira abortu legal, publiko eta seguruak bermatzen. Abortatzeko eskubidearen aldeko militantea izanik, borroka nekazari mugimenduan eta medikuntzan nolakoa izan den azaldu digu.

 **ESTI REDONDO**

**Beste herrialde batzuetan abortuaren eztabaida ez da nekazari mugimenduetara heldu, komunitateek duten sentimendu erlijiosoa dela-eta beldur handia dago. Abortuari buruzko eztabaida hasiera ausartu zineten.**

Asko kostatu zitzaigun. Lehenengo, militanten bezala indarra hartu behar izan genuen, eztabaida egoki emateko. Mugimenduan, hasieratik, emakumeen sexu eta ugalketa eskubideak bermatzen saiatu gara, baina ez genion horrenbeste arreta jarri ez-ugalketari.

Beldur ginen hiru arrazoiengatik: eztabaida zaila izango zelako, mugimendu mistoa izanik edukiko zituen ondorioengatik, eta momentu horretan adierazpen publikoa egiteak izan zitzakeen arriskuengatik.

2015ean Latinoamerikako nekazari mugimenduen koordinakundearen kongresuan Argentinako emakumeen bilera izan genuen. Biler hori Feminismo Nekazari eta Herritarraren hauspoa izan zen, eta abortuaren eztabaidan aurrera egiteko momentua. Ez-ugalketarako eskubideak aintzat hartzea eta abortua nekazari mugimenduaren agendan sartzea lortu genuen.

**Zeintzuk izan dira bidelagunak?**

Esan bezala, eztabaida hasiera erabaki bai, baina oraindik beldur ginen. Zorionez, urte horretan hasi zen ‘olatu berdea’ [abortu legal, publiko eta seguruaren aldeko mobilizazioak]. Eztabaida publikoa bihurtu zen, maila guztietan. Eskubideen aldeko eztabaida zen: abortatzeko modu



seguruak eskura izatea, bere kabuz edo abortua gaizki egiteagatik osasuna arriskuan ez jartzeko alor publikoaren bidez egin ahal izatea... Eztabaida orokorrak asko lagundu zuen.

**Batzuetan feminista urbanoen presioa sentitu zenuten.**

Komunitateetara ez da hirietan dagoen informazio guztia heltzen, baina halere eztabaida hor zegoen, eta borroka handia koloreen artean. Batzuk abortatzeko eskubidearen alde, berdearekin, besteak urdinarekin [beraien buruari ‘bizitzaren aldekoak’ deitzen diete eta mugimendu feministak eskubideen aurkakotzat ditu]. Gure bileretan gaia lantzen hasi ginen, eta hirietako feministek abortuaren aldeko adierazpena egiteko eskatzen ziguten, presio handia egiten ziguten, eta ez zuten ulertzen landa eremuko mugimendu misto batentzat egoera zaila zela, eta denbora behar genuela. Orduan ez genuen publikoki iritzirik eman nahi, baina landa eremuan abortatzeko eskubidea bermatzeko pausoak eman genituen.

Gauza oso politak gertatu zitzaizkigun prozesu horretan. Martxoak 8ko martxara joan nintzen baserritar talde



batekin, eta nik ez nekien zapi berdea jantzi edo ez... Halako batean baserritarrek beraiek agertu ziren zapiekin eta mugimenduko pankarta aurrean kokatu zituzten. Oso hunkigarria izan zen, eta batzuetan gure tabuak baserritarrenak baino indartsuagoak direla sentitu nuen.

### Aipatu duzu kontraesanak sortu zirela mugimenduan.

Talde mistoa izanik, emakumeekin lotutako eskubide prozesuetan beti gara motelagoak. Kasu honetan, eztabaida emakumeen artean eman genuen eta gizona ezkoek onartu behar izan dute. Gure erabakitze eskubidea denez, gure artean eztabaidatu genuen.

Lehen ere aipatu dut, hirian dena dago gertuago: informazioa, abortu kasuak, mediku zerbitzuak, talde militanteak... Komunitateetan, jende gutxi izanik, ezkutatzeko joera handiagoa dago. Baina bestalde, komunitate batzuek oso natural bizi dute, ez dute gatazka etikorik bizi, betidanik mendiko landareei esker abortatu izan dute. Halere, ezkutakoa ikusaraztea lortu da, emakumeen jakintzarekin lotutako informazio gordea ateratzea.

### Erresistentziak ere izan dira.

Emakume baserritarren artean, erlijioarekin lotutako erresistentziak izan dira; katolikoekin, eta bereziki, ebanjelikoekin. Elizek lan handia egin dute eta beraien diskurtsoa ez da kontrajartzen erraza, fedean eta dogma moraletan oinarritzen delako. Oso zaila izan da fundamentalismo erlijiosotik atera eta abortua eskubide bezala lantzea. Aldiz, mugimenduan denbora asko daramaten emakumeentzat eta alaba nerabeak dituztenentzat oso erraza izan da.

### Medikua zara. Osasungintzan ere pausoak eman dira azken urteetan.

Medikuntzan ere badira erabakitze eskubidearen aldeko taldeak. Eztabaida pil-pilean zegoenean, 'eskubideen aurkakoe' esaten zituzten gauza askok oinarri zientifikorik ez zutela eta argudio moralak besterik ez zirela ikusarazi genuen.

Horregatik, 1918ko legeak abortua bortxaketa eta hiltzeko arriskua egonez gero legala dela berretsita, abortatzeko balio duen Misoprostol medizina erostea eta eskura izatea bermatzen hasi ginen. Orain 'osasunari' buruz hitz egiten dugunean, osasun integralaz ari gara, eta horrek aukera asko zabaltzen ditu. Osasuna ez da gaixotasun falta, baizik eta gorpu-



**CAMILA RECALDE:** "Hiritako feministek abortuaren aldeko adierazpena egiteko eskatzen ziguten, presio handia egiten ziguten, eta ez zuten ulertzen landa eremuko mugimendu misto batentzat egoera zaila zela, eta denbora behar genuela".

tzaren eta gizartearen ongizatea.

Abortu seguruak egiteko bidean, oso garrantzitsua izan da lehen errezetarekin [aseguru mediku erdi pribatua] bakarrik erosten zen medikamentua orain estatutak ordaintzea eta banatzea. Oso garestia da eta batzuk ezin zuten tratamendu osoa erosi.

Orain, profesional batek legalizatuta dauden abortu horiek oztopatzen badi-tu, delitua da. Ospitaleek eskubidea bermatu behar dute, eta egiten ez badute, emakumeek salatu dezakete eta osasun sistema nazionalak erantzukizunak eskatuko ditu.

### Baina oraindik falta da...

Legala zena bermatzen hasi gara, aurrerapauso handia da. Abortua askoz seguruagoa da orain. Baina oraindik ez daukagu borondatezko abortua egiteko eskubiderik, hau da, bi egoeratan baino ezin da abortatu: bortxaketa izan bada edo emakumaren osasuna arriskuan badago.

### Zuen borroka landa eremuan abortatzeko eskubidea bermatzea da.

Osasun sistema orokorrak diseinatzen direnean ez da landa eremua aintzat hartzen. Oraindik ere, abortua bermatzen ez duten ospitaleak daude, batzuetan inor ez dago prest abortua egiteko, medika-


mentua eskatzea zaila izaten da... Dena hiritik dator, eta abortu kasuetan arintasuna funtsezkoa da, eskaera hirira heldu orduko, handik medikamentua ekarri orduko... Batzuetan denborarekin jolasean gabiltza.

Gure departamenduan, Cruz del Ejen, udal ospitale batean hasi ginen egiten, hango mediku bati esker. Beste herri batzuetan ere bere bidez egiten genuen, baina orain dela gutxi eskualdeko ospitalean hasi gara. Aurrerapauso handia izan da. Denbora gutxi daramagu eta oraindik oztopoak ditugu, besteak beste emakumeek ez dute aukera ezagutzen. Halere, ospitaleak zeuzkan lehenengo hiru tratamenduak lau egunetan erabili genituen.

### Zer esan nahi du emakume baserritarrentzat?

Beraien bizi kalitatea hobetu dela uste dut, erabakitze gai izateak askatasuna ematen du. Autonomian eta autoestimuan hobekuntzak daude erabakitze eskubidea dagoenean. Guregan pentsatzeko ate berria irekitzea da.

Sexu heziketa integralean aurrerapausoak eman behar ditugu, abortatu aurretik ere, baserritarrek beste hainbat pauso eta erabaki hartzeko gai izateko. Abortatzeko erabakia azkena da, aurretik dauden beste erabakiak ere ziurtatu behar ditugu. ●



# AEBetako presidenteen efektuetako bat



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**N**ew Haven (Connecticut, AEB), 1955. Yale unibertsitateko Frank A. Beach etologoa (1911-1988) animalien –eta, beraz, gizakien– jarrera sexual jakin bat aztertzen ari zen; zenbait kasutan, arren nahiz emeen libidoak gora egiten zuen, bikotekidea aldatuz gero. Fenomeno horri Coolidge efektua esan zion, Calvin Coolidge (1872-1933) AEBetako presidente ohia gogoan.

Coolidge 1923 eta 1929 urteen artean izan zen presidente eta, bere karre- ra politiko osoan hauteskunde bat bera ere galdu ez zuen arren, ez zen bereziki nabarmentzen; zuhurra, apala eta neurritsua zen, ez zen hiltun aparta eta karrisma berezirik ere ez zuen. Bitxikeria bakarra Etxe Zurira eraman zituen bi maskotak izan ziren: Rebecca mapatxea eta Billy hipopotamo. Baina sekula ez zen sexu eskandalurik azaleratu haren inguruan.

Kontua da behin Calvin eta Grace Coolidge senar-emazteak hegazti haztegi bati bisita egin ziotela eta, halako batean, oilarra egunean oiloak 30 al- diz estaltzeko gai zela azaldu zienean, brometan, zera bota zuen lehen damak: “Mesedez, esaiozu hori presidenteari”. Senarrak, orduan, hauxe galdetu zion abeltzainari: “Beti oilo berdina estaltzen al dute?”. Eta abeltzainak ezetz erantzun zionean, errematea eman zion: “Bada, mesedez, esaiozu hori emazteari”. Hala,




CALVIN COOLIDGE AEB-ETAKO PRESIDENTEA ETA GRACE EMAZTEA.  
BIEN ARTEKO PASADIZO BATEK EMAN ZION IZENA COOLIDGE EFEKTUARI.

txiste txar desagoki horrengatik Coolidge izena promiskuitateari lotuta geratu zen, AEBetako presidenteen zerrendan “ohore” hori merezitzeko oinarri askoz sendoagoa duten izenak egon arren.

Thomas Jefferson (1743-1826) hirugarren presidentek gutxienez haur bat izan zuen Sally Hemings esklaboarekin –DNAk gerora frogatu duenez–, baina, itxuraz, guztira sei seme-alaba izan zituzten –eta Hemingsek ez zuen askatasuna lortuko presidentea hil arte–. Coolidge aurretik presidente izandako Warren Hardingek (1865-1923) maitale bat izan zuen 15 urtez, beste batekin alaba bat izan zuen... eta zurrumurruen

arabera emazteak pozoituta hil zen. Franklin D. Roosevelten (1882-1945) maitaleen zerrendan bere emaztearen idazkaria eta Norvegiako Marta erregina zeuden. John F. Kennedyren (1917-1963) zerrenda luzean, aldiz, Marilyn Monroe da izenik ezagunena. Haren ondorengo Lyndon B. Johnstonek (1908-1976) horrela alderatu zuen bere burua JFKrekin: “Emakume gehiagorekin egon naiz nahi gabe, bera borondatez baino”. Bill Clinton eta Monica Lewinskyren arteko aferaren xehetasunik txikienak ere komunikabideetan zabaldu ziren. Eta Donald Trumpi dagokionez, nondik hasi? ●



## Egiptoko tinta iraunkorra

**A**dituek beti nabarmendu izan dute antzinako Egiptoko papiro zahar askotan tintak oso egoera onean irauten duela, eta Kopenhageko Unibertsitateko diziplina anitzeko talde batek tintaren sekretua jakin berri du.

Erromatar garaiko hainbat papiro- rotako tintaren azterketa kimiko mikroskopikoari esker ikusi dute beru-

na dela osagai sekretu hori, berunak tinta lehortzen duelako eta papiroari atxikitzen laguntzen diolako. Gainera, ondorioztatu dute beruna ez zutela pigmentu moduan, hau da, kolorea emateko erabiltzen, metalaren propietateak ondo ezagutzen zituztela eta propio erabiltzen zutela lehorgarri eta finkatzaile moduan. ●





# Irratitik umore-uhinak

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Umorea egiteko garaiak ez direla diote batzuek. Akaso bai. Denbora ilunetan ere egin daiteke umorea, ezta irakurle? Nik behintzat, garai ilun edo argiatatik den ez dakit, baina beltza bada, sarri nahiago. Aitortu behar dut gorabeheratsu dabilkidala azken aldian animoa eta nire buruari onartzen dizkiot haserre-poz-tristura horiek, baina ez beti eta ez gehiegi ere. Ondo dago negar egitea, normala da frustrazioak izatea, haserre sentitzea eta hori guztia, baina nahiago dut batzuetan neure buruari gogor egin, txipa aldatzera bultzatu eta bizitzari umoretik begiratzea. ARGIAk eman dit umoretik tiratzeko tresna bat eta uste dut ez naizela gustuko duen bakarra, uhinetaraino salto egin baitu.

*Beranduegi.* Lehen ere asteroko web telebista gustura ikusten nuen eta orain *podcast* formatuan ez du hutsik egin. Zortzigarren saioa zintzilik dago sarean eta ez argia.eus webgunean bakarrik, baita arrosasarea.eus atarian ere eta Segura irratan, ostiraletan, 14:00etatik 15:00etarako emankizunen tartean. Arrosa Sarea taldeari ARGIAk berak egin zion duela ia urtebete sortzen hasi ziren *podcast*-ak euren atarian edo irrati-tan zabaltzeko eskaintza. *Beranduegi* saioak webgunean zintzilikatzeko tratua egin zuten. Segura irrati-koek, aldiz, beraiek azaldu zuten horrelako *podcast* bat Goierriko zo-

naldean irrati bidez zabaltzeko asmoa.

Ez da ARGIAk sortzen duen *podcast* bakarra. Net Hurbil astekariko atalari lotutako gaiei helduz Pello Zubiriarekin eman zioten hasiera Eneritz Arzallusek eta biek saio hauei eta geroztik Jenofa Berhokoirigoin batu zaie. 2020ko martxoan egin zioten lekua *Oasiko Kronikak* emankizunari, konfinamendu garaietan umorez egina. *Beranduegi* berriz, zortzigarren saioa zabaldu berri du eta arrakasta izaten ari da; Ivoox eta Spotify plataformetan zintzilikatuta, 400 entzunaldi inguru izaten ditu astero eta hori Arrosa Sareko eta Segura irrati-ko entzuleak kontutan hartu gabe.

*Podcast* edo entzuteko saioen formatu berri honekin hasi zirenerako bazekiten geroz eta komunikabide gehiago ari zirela horrelako saioak egiten. Orain helburua da dagoeneko egiten dituztenak egonkortzea eta ahalik eta belarri gehienetara iristea, dela zuzenean ARGIAtik, dela beste atari eta irrati batzuetatik. Sortutako materiala zabaltzea. Dena den, ez dute baztertzen *podcast* berri gehiago sortzea taldeko kazetari edo kolaboratzaileekin. ●



## ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA. Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Proiektu interesgarria iruditzen zaidalako. Garai gogor hauetan horrelako proiektuak ere babestu behar dira".

Lezamako Gontzal

"Euskaldun berri naiz eta pixkanaka abiadura hartzen ari naiz euskararekin. Hedabide kritikoa eta independentea bilatzen ari nintzen egiten ari naizen inmertsio politiko-kulturala hobeto ulertzeko".

Orozkoko Ignacio

"Kalitatezko aldizkaria delako".

Aramaioko Ana

"Euskaraz artikulua idazten dituzten hedabideek jarrai dezaten sustatzeko".

Ermuko Ander

"Lan zintzo, kalitatezkoa eta ona egiten duzuela iruditzen zaidalako".

Ordiziko Xanti

# EZKURRAK ANIMALIONTZAKO ELIKAGAI



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Onddo-debekurik ez den tokietan biltzaile eta harrapakari jendea erruz ibili da mendian lehengo ilargialdian. Ezkurra den tokian ibiltzen da onddozalea. Onddotarako lurralde aproposak dira ezkurak ematen dituzten zuhaitzen sustraiek kolonizatu eta arakutzen dituzten sailak. Berdin da ametza (*Quercus pyrenaica*), artea (*Quercus ilex*), artelatza (*Quercus suber*), haritz kanduduna (*Quercus robur*), haritz kandugabea (*Quercus petraea*), haritz amerikarra (*Quercus rubra*), erkametz (*Quercus faginea*), abaritz (*Quercus coccinea*) edo pagoa (*Fagus sylvatica*).

Euskal Herrian bi paisaia kultural nabarmen desberdin ditugu. Faktore ekologiko nagusien arabera, zuhaitz eta arbola desberdinen fruituak gehiago edo gutxiago azalduko dira bakoitzean. Horrek kultura eta historia irartzen ditu, bakoitzean berea. Bata, isurialde atlantikokoa, hurra (*Corylus avellana*), sagarra (*Malus domestica*), gaztaina (*Castanea sativa*) eta pagatza (*Fagus sylvatica*) janez bizi eta jantzi da. Bestea, isurialde mediterraneokoa, aldiz, pinazia (*Pinus spp.*), mahatsa (*Vitis vinifera*), oliba (*Olea europaea*) eta pikua (*Ficus carica*) janez. Hala ere bietan jan izan da ezkurra, *Quercus* generoko ezkurra, alegia. Bi isurialdeetan badira genero horretako espezieak. Denen ezkurak jangarriak dira, eta urtero uzta ederra sortzen dute. Pertsonak bezalaazienda elikatzeke erabili izan dira ez-



kurak. Udazkena eta negua motzago eta beroago egingo zituzten ezkurrek. Irailan heltzen da erkametzarena; hori da lehena, eta azkena otsail aldera erortzen den artelatzaarena.

Jangintza honen inguruan lan polita argitaratua du Enrique Garcia Gomez baso ingeniari teknikoak. Bere aburuz, genero horretako ezkurak oso aberatsak dira osagai hauetan: koipeak –batez ere asegabeak–, karbohidratoak eta mineralak. Badute, baina, bestelakotik ere: toxinak. Ezkurrari kosk egin eta aho sabaiki

di-da igarriko duen mikaztasun hori da bere ezaugarria, taninoek eta glukosidoek ematen diotena.

Guretzako ezkur mota guztiak jangarriak dira, denetan gozoena artearena omen da: arte-ezkurra edo artazia. Arteen bi azpi-espezie ditugu, isurialde atlantikoan *Quercus ilex subsp. ilex* eta mediterraneoan *Quercus ilex subsp. ballota*. Bigarrena omen da gozoena, preziatuena izan dena. *Ballota* hori arabiarretik dator, eta “artea” esan nahi du. Ezkur gozo horri Uxuen “*ancina*” esaten diotela jasoa du Mikel Burgik. Baita XX. mendeko 60ko hamarkada arte jaten zutela ere.

Era askotara jan izan dira, gordinik edo gehienbat mingostasuna kenduta: ez lehertzeko koskatu eta erreta, egosita, kafearen tankeran eta eho ondoren ogi eginda. Daniel Maria Perez Altamira etnobotanikariak jasoa du ezkur gordina jateak haritzaren indarra pertsonari transferitzeko helburu sendagarri eta magikoa zuela.

Bueltan dator ezkurra elikagai gisa. Garia edo ogia barra-barra zuten erromatarrek eta haien ore bereko opila izan direnek janari primitibotzat edo landugabetzat jotzen zuten; mespretxuz iraintzen zuten, pertsonentzat ez omen zela egokia zioten, bai ordea animalientzat. Eta beraien zer zirela uste ote zuten? Eta beste galdera bat, bukatzeko: nola esan behar diegu ezkur edo fruitu jangarri emailei, zuhaitz ala arbola? ●





## PIRINEKI ESNEKIAK

LARRETIK JOGURT  
POTORAINO, MIMOZGARAZI ZABALETA  
@TIRIKITRANN

**E**txeko ogibideari jarraipena emateko asmoz hartu zuten Aitor Zazpe Urmenetak eta anaia Koldok esne behien eta esnekien ekoizpenean lanean hasteko erabakia. “Aitak amatxirekin hasi zuen ibilbidea duela 30 urte baino gehiago, eta koxkortzen ginen heinean guri animatzen zigun honetan has-tera”, dio Aitorrek, Aurizberriko Pirineki Esnekietako kideak. Duela bost urte hasi zen behiekin lanean Koldo anaia, eta iaz batu zitzaion bera proiektura. Aitarekin batera eta etxekoen laguntzarekin ari dira lanean: behiak haztetik hasi eta esnea jogurt bihurtzeraino, prozesu osoa egiten dute etxean.

## KANPOAN HAZITAKO BEHIAK

Aita eta anaia aritzen dira batez ere behizain, Aitor Zazpek azaldu duenez: “50-60 bat buru ditugu; dezente dira, baina jardun honetan ari diren askorekin alderatuta, gutxi”. Etxeko ekoizpena izanik ez da kopuru txikia, baina inguruan nagusi den ekoizpen industriale-rik urrun gelditzen da Pirineki: “Ziklo osoa hasi eta bukatu egiten dugu hemen: behiak pentzean muturra jaisten duenetik kontsumitzailerara iritsi arte, prozesu osoan gaude gu”, gehitu du.

Apirila inguruan hasten dira behiak Pirinioetako belardietara ateratzen, belarra agertzen den garaian, eta elurra iristen den arte egoten dira bertan. Abuztu-



tik aurrera belar nahikorik ez dagoenez, ekainean etxean egindako belarrarekin laguntzen diete animaliei. Negua gogorra izan ohi da Aurizberri inguruan, beraz, barrura sartzen dituzte behiak garai horretan. “Nafarroan behien inguruan saltzen diguten irudia da beti kanpoan daudela, baina errealitatean oso laborari gutxi gara benetan behiak kanpora ateratzen ditugunak, gehienak haztegietatik atera gabe egoten dira”.

## AMATXIREN BIDEA GAURKOTUZ

Transformazioaren alorrean ari da lanean bereziki Zazpe: esnea pasteurizatu eta ontziratu egiten dute litroko botiletan, gazta freskoa egiten dute, eta baita jogurtak ere. Momentu honetan gurina ekoizten hasteko probak egiten ari dira: “Eraldatze gunea sortzeko inbertsio

handia egin behar izan dugu azpiegituran, baina anaiak eta biok argi genuen ez geundela orain arte bezala lanean segitzeko prest”. Izan ere, esnea zentral handietara salduz bizimodu duina nekez aterako zutela ikusten zuten, eta horregatik erabaki zuten eraldatzearen prozesua ere beraiek hartzen hastea.

Momentuz, ekoizten duten esnearen zati bat beraiek eraldatzen dute, eta beste bat esnetegi handiagoei saldu. Baina pixkanaka geroz eta gehiago beraiek erabiltzea da asmoa. Badira Nafarroan esne ekoizle txiki gehiago ere, eta has-tapenetik beraien laguntza jaso dute-lako eskertuak daude: “Gehienek begi onez ikusi dute horrelako proiektu txiki gehiago egotea, denen artean gauzak aldatzeko indarrak batzea errazago izanen da-eta”. ●







**Teléfono**



**IDOIA HERNANDEZ**

**HATXE**





# Musikari izateko erabaki politikoa hartzeak zartatu egiten zaitu

Musika joan etorrian bizi izan du oraintsu arte: ikasi zuen akademikoki, utzi eta ia ahaztu zuen gero. Duela bospasei urte berreskuratu zuen piano zahar batekin. Heldu badio ondo heldu dio musikak, ordea, eta berak ere halatsu heldu dio. Koronabirusaren pandemia azaltzearekin bat plazaratu zuen, udaberrian, *Panpin hautsien dantza* bigarren lana, Mukuru zigiluarekin. Ez du nahi bestetan aurkezterik izan, eta lehenagotik zekarren kezkak hartaratuta, musikariaren prekarietate egoerari aurre egiteko baliatu du aldi “ilun eta arraro” hau, besteak beste Musikari Elkarteko zuzendaritza talde berrian sartuz.

 GORKA EROSTARBE LEUNDA  DANI BLANCO

**B**idegurutze moduko batean ikusten du bere burua Idoia Hernandezek (Errenteria, 1988). Musikatik bizitzea nahi luke izen artistikoz *Hatxe* bezala ezagundea sortzaileak, eta musikariak bizi duten prekarietateak ateratzeko boroa egiteko prest dago. Musikarekin bezalaxe orain ari da berradiskidetzen Beraunekin, bere haurtzaroko auzoarekin ere. “Sinbolismo handiko lekua da niretzat auzo hau. Herrigunearekin muga egiten du. Periferia da. Bidegurutzea. Hemen giro desberdinak ezagutu eta bizi nituen haurtzaroan, eta kultur eta musika aniztasuna islatzen dizkit. Oraintsu itzuli naiz”. Han elkartu gara *Hatxe*rekin. Lau kantaz osaturiko *Panpin hautsien dantza* diskoaz solas egitea zen asmoa. Lau hanka ditu proiektu horrek. *Hatxe* da gidaria, baina haren abaroan aritu dira Peru Galbete (ahotsa eta gitarra), Jurdana Otxoa (biolina) eta Ilargi Agirre (bateria) ere. Alarma egoera berria eta etxeratze agindua indarrean ja-

rrri aurretik, eta Musikari Elkartek bere zuzendaritza berriaren albistea zabaldu aurretik egin genuen elkarrizketa hau.

**“Piano bat Mikelazulon”. Ez da, baina izan zitekeen kanta baten izenburua. Zer iradokitzen dizu?**

Hor hasi zen dena: Mikelazulon [Errenteriako kultur-gune autogestionatua]. Nire sorkuntza ibilbidea, eta nire berradiskidetzea musikarekin. Musika ikasketak egin nituen gaztetxotan: solfeoa, korala, harmonia... 18 urterekin beste karrera bat hasi nuen (Ingeniaritza) eta musikarena amaitu egin zen. Musika ikasketa horien oso oroitzapen txarra daukat, dena baitzen oso teorikoa, oso exigentea, ordu asko, dena partiturekin, helburu bakarra teknika lortu eta partiturak irakurtzeko azkartasuna hartzea, eta zertarako? 20 urterekin ez nekien kanta bakar bat ere jotzen. Ez nintzen gogoratzen, irakurtzeko gaitasuna galdu egiten baita. 2014an beka bat eman zidaten Boliviara joateko, Eusko Jaurleri-

tzaren bitartez, kooperante bezala. Hiru hilabetez izan nintzen han. Pentsatzen nuen ingeniari bezala hartuko nindutela, baina ez, musikari bezala hartu ninduten. Musika irakasle bezala joan nintzen, eta han harra berpiztu zitzaidan, baina batez ere handik bueltan Mikelazulon sartzean.

**Besteak beste, piano zahar bat aurkitu zenuelako.**

Bai, lanean hasi nintzen bertan, tabernan. Piano zahar-zahar bat zegoen han. Hasieran kosta egin zitzaidan piano hartan jartzea, baina pixkanaka elkarrizketa bat hasi zen gu bion artean. Mikelazulok badu zerbait berez, sorkuntzara bultzatzen zaituena: sarrerako toldoan badago lelo bat: *Aitzakiarik ez*. Ekosistema horretan badago energia eder bat. Eta beste lelo bat geure egiten dugu: *Epaiketarik ez*. Bizitza hau da epaiketa konstante bat: lehiakortasuna etengabe, eskolatik hasita, lan mundura arte. Hori haustea da kontua.

# Lau izen

## KURT WEILL

Ai, izugarri gustatzen zait. Musikaren analisia ikasten ari nintzenean eta Erdi Arotik XX. mendera iristean Asierrek [Asier LI] berak esan zidan asko gustatuko zitzaidala, eta halaxe da. Ordu-rako banituen disko honetako kantak poltsikoan, eta nahiz eta intuitiboki sortu dudan... Weillen kabaret-antzerki kutsu horrek asko erakartzen nau. Lantzen zituen atmosfera beltz horiek, teatroa... eta gero musikari molde baten oinarria: Nick Cave, Tom Waits... Kabareta, opera, konponketak, maila izugarria dauka. Eta gainera, Bertolt Brechtekin egindako elkarlanak. Eta oraindik asko deskubritzeko.

## TOM WAITS

Hasieratik erreferente handi bat. Zenbat aldiz entzungo nuen *Swordfish-trombones* diskoa. Nire diskorako garbi nuen bateria jotzailea emakumezkoa nahi nuela. Miceren kontzertu bat ikustera joan eta garbi izan nuen Ilargi Agirre izatea nahi nuela. Aipatu nion zein *onda* nahi nuen, eta bidali nion Tom Waitsen disko hori. "Hau ez da batere erraza", esan zidan. Badago tipo bat galiziarra, Avelino Saavedra izeneko, egiten dituen soinuak bateriarekin, eta hura ere pasioz begiratzen dut Youtuben. Waits, gainera, oso teatrala da baita ere, irudiak, erritmoa...

## NINA SIMONE

Ez dit ezer berezirik esan orain artean, entzun ere entzungo nuen irratan, filmetan, noizbait, eta abesti ezagunak, ez gehiago.

## MURSEGO

Erreferente bat. Ainara Legardonekin batera, akaso erreferente nagusiak oraintxe niretzat, bai emakume direlako, baita pertsonalki ere. Beraien fan handia nintzen lehendik, eta oraintsu jakin dut nire fan bihurtu direla, eta hori gauza handia da. Horrek subidoi handia ematen du. Ea zerbait egiten dugun elkarrekin... Musikalki zerbait berezia dute, musikaren lanketan bereziki. Nire burua bisualizatzen dudanean beraien irudia etortzen zait. Zinema eta dantzaren munduarekin ere lotura dute, eta neu ere hasi naiz pixka bat horretan. Labur batekin eta dantza konpainia batekin nabil lanean.

## Zer soinu zuen piano hark?

Dekadentea, Tim Burtonen pelikule-tako kantak egiteko perfektua. Desafinatua, baina ez gehiegi. Atzean entzun zenezakeen kantaren melodia nahiko argi. Imajinario pixka batekin, noski. Teknikoki ere, Sustain pedal konstante bat zuen. Nota guztiak oso luze entzuten ziren eta nota asko sartuz gero elkarren segidan, kaotikoa izan zitekeen. Agian horregatik atera ziren kanta minimalistak?

## Beste kanta baterako izenburu posiblea: "Piano bat Ea-ko hondartzan".

(Barreak) Bai. Eako Poesia Egunak jardunaldietan *Zanbuia!* ikuskizuna aurkeztu genuen duela pare bat urte, aire zabalean. Niretzako izan zen sekulako aukera miresten ditudan lagun batzuekin lan egiteko. Metrokoadroka kolektiboak izugarritzko ahalmena dauka jendea engainatzeko, zentzu onean esanik, bere lagunak gonbidatzeko proiektuetara eta ekosistema sendotzeko. Mikelazulora iritsi nintzeneko bazegoen jada ekosistema hori, ni gazteenetakoa izango naiz. Oierren [Guillan] deia jaso eta artista talde horretako beste kide bat sentitu izana izugarria izan zen niretzako. "Nola ez! Noski parte hartuko dudala", erantzun nuen. Oso aberatsa izan zen aktoreekin, idazleekin, dantzariekin eta Mus-kulo taldeko musikariekin lan egitea.

## Eszenografikoki ere oso indartsua izan zen *Zanbuia!*, eta lehen sekuentzian zeu agertzen zara hondartzan pianoarekin.

Metrokoadrokarentzat ere oso garrantzitsua izan zen lan hura. Niretzat ohorea izan zen lehen planoan izatea. Hasieran beldurra ere izan nuen baina... Herria bera zen eszenatokia. Joko handia ematen du horrek. Frontoia, erreka, etxeak, zubiak, eta hondartza noski. Irudi poetikoak sortzeko eszenatoki perfektua. Eta niretzat lan eder hura irekitzea ohore bat izan zen. Dramaturgoaren aukera izan zen eta, nahiz eta momentu horretan beldurtuta egon, eskertzen diot. Askok nire aurpegia bertan ezagutu zuten eta.

## Beste izenburu bat: *Panpin hautsien dantza*. Honakoa erreala da, ordea. Kaleratu zenuen diskoa udaberrian eta pandemia agertu. Paradoxikoki, izenburuak ez al

## du hartu are zentzu handiagoa?

## Panpina hautsien dantza da zuona, musikariona?

Sentimendu hori lehen ere bagenuen, eta COVID-19aren kontuarekin areagotu da. Izugarria da aspektu artistikotik dugun zaurgarritasuna, ez da soilik ekonomikoa. Ez da ofizio bezala hartzen, eta sozialki onartua izateko ere modu jakin batekoa izan behar duzu. Musikari izateko erabaki politikoa hartzeak zartatu egiten zaitu, eta gainera emakumea baldin bazara, bikoiztu edo hirukoiztu egiten da zartaldia, nahiz eta batzuetan ez dugun ikusi ere egin nahi. Artisten munduan prekarietatea hain dago onartua ezen normalizat hartzen den.

## Prekarietateak zartatu egin zaitu?

COVID-19ak eragin dit emozionalki sentsibleago egotea, eta indar gutxiago izatea. Indar handia atera behar duzu barrenetik proiektuak martxan jartzeko. Une batean jaso zenezake albiste oso pozgarri eta motibagarriren bat, hango edo hemengo deiren bat, baina atzetik beste bi datoz txarrak, hondoratzailerak. Eta horrela gabiltza panpin hautsien dantzan. Batzuetan pentsatzen dut: "Bipolarra naiz, edo bipolarra izatera bultzatzen naute?".

## Hala ere, egoera honek balio izan du alarma gorria pizteko eta musikariok zuen artean batzen hasteko. Orain artean falta izan da?

Bai, Musikari Elkartearen zuzendaritza hartuko dugu zazpi emakume musikarik [Olatz Salvador, Miren Narbaiza, Eneritz Dueso, Izaro Andres, Lide Hernando, Garazi Esnaola eta Idoia Hernandez bera]. Eta hori pandemiarengatik izan da. Lehenago Gernikan elkartu ginen 100 bat emakume musikari eta hortik abiatuta zazpi emakumek zuzendaritza hartzea erabaki dugu. Hori positiboa da. Gaztetxoak gara gehienok, nire adin ingurukoak... Sumatzen ditugu talka txiki batzuk 10-15 urte gehiago duten belaunaldikoekin.

## Zein talka?

Kultura oso politizatua dago; diruaren kontua beti izan da tabua, eta prekarietatea beti izan da oso onartua. Dinamika batzuk daude aurrez ezarriak, eta zaila da horiek puskatzen. Nik ulertzen dut gauzak nola egin ere garrantzitsua dela, eta aldarri politikoa ere bai nolabait, baina ez badugu prekarietatea





gainditzten beste zer baitetan hasi behar-ko dugu lanean.

**Hor bada gai interesgarri eta paradoxikoa. Alegia, batetik dago borroka egitea prekariedade horretatik irteteko; bestetik dago zu zabiltzan kultura ingurunea eta ikuspegia, dela Mikelazulo, dela Mukuru kolektiboa, zeinetan baduzuen musika eta kultura industria hegemonikoari aurre egiteko nahi bat ere. Bigarren hori sarri ulertzen da aspektu ekonomikoari hainbesteko garrantzia ez ematearekin. Nola bizi duzu dikotomia hori?**

Nik hor asko sufritzen dut. Badut iratzko moduko bat sorbalda gainean, iratzko politiko-militantea edo, eta *automatxakea* eragiten dit. Mukurun biltzen garenean ez dugu ezer aurrez ezarria, ez daukagu bide garbi bat ere, eta hor gabiltza hausnarketan eta pixkanaka bidea egiten. Etengabe planteatu behar ditugu gauzak. Esaterako, nire buruari galdetzen diot orain ea egin behar dudana *Hatxeren* Facebook orrialdea. Batzuetan pentsatzen dut egon behar dudala eskaparatea den heinean; bestetik, galga ideologiko bat ere badago, eta baita ere, zergatik ez esan, pereza bat, joko horretan sartzeko. Horrek dinamika batzuk sortzen baititu: irudi bilakatzen zara. Baina...

**Zein izango da zuen zuzendaritzaren norabidea? Eta lehen erabakiak?**

Batetik, kontratazioarako praktiken gida

bat osatzea, udalei eta enpresa kulturei zuzenduta. Ez gara sindikatu bat, beraz ezin dugu konbenio bat hitzartu, baina bai artisten duintasuna bermatzen duten gomendioak eman. Eta bestetik, musikariak informatzea eta sarea trinkotzea, musikaren profesionalizazioa bultzatuz. Urtean kontzertu bat edo hamar egiten badituzu ere. Beti ere musika sortzaile zein interpreteei ahotsa emateko.

**Hau guztia entzunda, eta zure disko berriko kanten izenburuei erreparatuz, egungo musikaren egoera histeriarekin aldera liteke, eta musikaria hori guztia dramaz bizi duen ero bat da?**

Ez du zertan drama izan, baina ero senti naiteke bai, batetik sozialki aitortzarik ez duzulako. Baina, bestetik, gauzak eskatzen dizkizute, edo eskaparate batean bazaude. Eta hori dena da gutxien inporta zaidana niri, nik musika egin nahi dut eta ofizioa izatea nahi dut. Sekulako inbidia ematen dit musikari frantziar hippy moduko bat ikusten dudanean hedabideren batean eta musikatik bizi dela kontatzen duenean. Gure egoera konpara nezake zaintzaren kontuarekin ere. Egun jende askok aldarrikatzen du, baina zaintza profesionalizatzeko edo monetizatzeko hitz egiten hasten garenean ezkerreko jende askok ere erresistentziak dauzka. Honekin zera lortzen dugu: berez jateko baduenak edota familiako etxe huts batean bizitzeko aukera duenak soilik egin dezakeela kultura.

Eta hori ez da demokratikoa, norberaren egoera pertsonal zein familiarren baitan uzten baita zein izan daitekeen artista eta zein ez. Eta maila sozial horretan dauden pertsonak soilik egin badezake te kultura, zein kultura ari gara bultzatzen? Herri mailako kultura ala maila sozial batekoa soilik? Zein letra entzungo ditugu? Zein mezu zabaldu nahi dugu?

**Antzerkiak, performitibitateak zer eman dizu musikari bezala?**

Eszenatokian egoteko modu bat. Beno, hori baino gehiago, eszenatokian egoteko modu bat kontzientzia batekin. Antzerkiak, gainera, diziplina asko hartzen ditu, plastikoa, soinuazkoa, narratiboa, gorputza... Gorputzak nola egon behar duen kontziente izatea bera asko da. Azken lan honekin, nik neuk gehiago erabili nahi nuen gorputza hasiera batean, baina beste musikari kideek begiratzaren zidaten... arraro!

**Antzerkia hainbeste bizi duzu, ezen zure pieza zenbaitetan badirudien instrumentuek elkarrizketak izaten dituztela euren artean.**

**Antzerkiarekin ispilu-jolasak daude?**

Bai, badaude. Ariketa horiek nahita landu izan ditugu geuk egindako egonaldi artistikoetan. Antzerkian asko jolasten da zure parte bat atera eta esajeratzea. Eta geuk ariketa hori egin dugu, nola probokatu gure barreneko hori beldur barik ateratzen, baita esajeratuz ere. Ideia hori izan dugu. Musikarekin, igual oso intuitiboki egin dut, baina gure arteko konplizitate hori bilatu eta atera da. Esaterako, Peruk eta Jurdanak sekulako konexioa transmititzen dute, sarri inprobisaziotik abiatuta. Biolina eta ahotsa oso lirikoak dira eta pianoa eta bateria oso perkutiboak, eta nabaritzen da.

**Mukuru kolektiboko kide zara.**

**Han balio ezinbestekotzat dituzue horizontaltasuna eta publikoarekiko gertutasuna. Non galdu da gertutasun hori?**

Gauza bat aitortuko dizut, musika klasi-koaren edo garaikidearen elitismo horrek inbidia ere ematen dit, alde batetik, zenbait ematen baitio aukera prekariedade hori ez sufritzeko. Agian ez da egia, eta hanka sartzen ari naiz, baina... Musika klasikoa ikustera joateko 20 euro merkea iruditzen zaigu; aldiz, Anari ikustera joateko oso garestia! Nola ordainduko dut 20 euro rock kontzertu baterako! ●

## OSKARBI

# ILUNTASUNAREN AURREAN, KANTUAREN ARNASA

Bost hamarkada baina gehiagoko ibilbidearekin, Oskarbi taldeak badaki zer den egoera zailetan musikaren eta kulturgintzaren haria elikatzea. Ez Dok Amairuren garaietatik gaurdaino, herri kantak eta sormen propioa izan ditu iturri. Hamabigarren diskoa grabatzen ari dira, dozena bat kantetatik lau Beasaingo Loinatz abesbatzarekin.

Hasierako zazpikotea  
lehen diskorako ateratako  
argazkian, 1969an

 URKO APAOLAZA AVILA



**M**usika talde gutxi izango dira Euskal Herrian halako ibilbide luzea dutenak. Oskarbi 54 urte beteko ditu azaroan: zientoka kantaldi, hamaika disko eta jakintza oso bat. Hamabigarrena grabatzen ari dira, eta esperientzia hori ez zaie batere gaizki etorriko pandemiak hankaz gora jarritako kulturgintzaren munduko erronka berriei aurre egiteko, Frankismoaren iluntasunean hasitako katea ez dadin eten.

1966ko azaroan hasi zituen lehen entseguak Oskarbi taldeak. Bere kideetako batzuk, Iñaki Maritxalar, Carmelo Arren eta Joxelu Treku, Errenteriako Don Bosco zentroko haur eskolan aritzen ziren kantuan, baina hura desegin zenean taldea osatzea pentsatu zuten, euskal kulturaren alde zer bait egiteko asmoz. 15-16 urte besterik ez zituzten. Berehala beste lau lagun batu zitzaizkien (Itziar Maritxalar, Mari Jose Fernandez, Maite Arizkorreta eta Kepa Garbizu), eta halaxe hasi zen

zazpikotea Eurovisioneko modako kantak euskaratu eta beraiek sorturiko melodiekin abesten, panorama musikalean otxoteak eta koruak besterik ez zeudenean.

Segituan, ordea, beste bide bati ekin zioten: jazz, gossela eta antzeko erritmoekin sormen lan polifoniko berritzaileak egiten. “Adibidez, Azkueren kantutegitik hartzen genuen melodia bat eta beste erritmo batekin ahotsak egin genizkion –dio Joxelu Treku taldekideak–. Tesitura altuagoan kantatzen genuen, eta oso azkar, orain harrituta geratzen gara orduko grabazioekin. Gazteak ginen eta dinamika handikoak, zerbait egiteko gogoarekin”.

Treku da, Iñaki Maritxalarrekin batera, hasierako taldetik Oskarbin urte guztietan jarraitu duen bakarra; esan liteke bakoitzak bere arloan egindako lanari esker eutsi diola taldeak: “Eta batez ere funtsezkoa izan da entseatzea”, dio Konstantzia, alegia.

## OTEIZAREN UKITUA

Don Boscoko abesbatzako zuzendari izandako Luis Romero Eskamendi antxotarrak lagundu zien hasiera haietan konposizio eta zuzendaritza lanetan. Kanturako dohain eta afizio itzelekoa –besteak beste Aita Donostiaren abesbatzan aritua–, Romerok herri kantutegi tradizionalarekin ez ezik, abangoardiako korrante garaikideko erreferente zen Jorge Oteizarekin jarri zituen harremanetan Oskarbikoak, haren oso laguna baitzen. Trekuk oroitzen du 1969an Arantzazun apostoluak jartzen ari zela artista ezagunarekin egindako egun pasa: “Egun osoa aholkuak ematen pasa zuen, euskal kultura gora eta behera, ukituta etorri nintzen”.

Geroztik, Oteizaren *Androkanto* eta antzeko lanetan inspiratuta estetika kantuak osatu zituzten, eta, esaterako, berak diseinatu zituen taldearen logotipoa eta lehen diskoaren portada. Beste



iturri garrantzitsu bat Bitoriano Gandiaga izan zen: hura ere han ezagutu zuten, Arantzazun, eta haren poemak sarritan erabili zituzten kantuen letrak osatzeko. Norabide horretan, ezinbestean egin zuten topo Ez Dok Amairurekin.

1967ko amaieratik 1971ko udara arte izan zen Oskarbi Ez Dok Amairuko partaide; garai oparo horretan 60 kantaldi eman zituzten elkarrekin. Frankismo betean, garrantzitsua zen kalean egotea, arnasbide bakarra zen askorentzat zentsura gainditu eta euskarara hutsean kantatzeko. Jaialdietako hitzak, adibidez, Informazio eta Turismo ordezkariatzara bidali behar izaten zituzten aurrez: *La Felicidad*, *Los dos tan felices...* Jakina, zorioneko poliziarik ez zegoela ikusiz gero, egitarau ofiziala alboratu eta zentsura pasa gabeko euskal kantekin hasten ziren.

1968an ez zen giro Euskal Herrian, Oskarbiko kide batzuek Martuteneko espetxean pasa zuten denboralditxo bat eta Gipuzkoan salbuespen egoerak biziki zaildu zuen kantaldiak egitea. Horregatik, sarritan Nafarroara eta Lapurdira jotzen zuten kantatzera. 1969ko martxoan, Donostian egiten ziren bileretako batean ondu zen *Ikuskaria* egiteko asmoa -Ez Dok Amairuren emanaldi bateratu bat, artista bakoitzaren pasea izan beharrean-, hurrengo urteetako *Baga*, *Biga*, *Higa* izeneko *Sentikari* sonatuaren aurrekaria kontsideratu litekeena.

### IRAULTZATXOA EZ DOK AMAIRUN

Oskarbi ez zuen soilik musikalki eragin Ez Dok Amairun, gazteagoak izanagatik, zazpi lagunek iraultzatxoa ere ekarri zuten: "Eman genion beste bizitasun bat, baina beraien ekarpenek ere guri sekulako jakinduria eman ziguten", dio Trekuk. Talde izaera zuten mugimenduko partaide bakarrak ziren, eta horrek zailtasun batzuk ere ekarri zizkien, "adibidez, gu zazpi izanda, zenbat boto genituen eta zenbat kobratu behar genuen, bakarlariek bezala?".

Testuinguru horretan, profesionaltasun eta militantziaren arteko eztabaida etorri zen: Oskarbikoek egunero entseatzeko zuten euren kabuz, eta talde handian entsegu eta kantaldi gehiago egitea ezinezkoa zen eurentzat. "Bakarlarik batzuek bazuten aukera eta normala den bezala beraien bidea jorratzen hasi ziren. Guk ez dugu sekula dirurik izan Oskarbitik bizitzeko, afizio bat izan da", azaldu digu taldeko beteranoak. Hala, 1971n *Baga*, *Biga*, *Higa*-ko hainbat kan-

talditan aritu ostean talde handia utzi zuten, baina harremana hautsi gabe.

Hortik gutxira desegin zen Ez Dok Amairu, profesionaltasunaren inguruan zeuden arazoengatik eta eztabaida praktikoenegatik ez ezik, 1971ko urriaren 31n Larraitzen egindako gaueko jaialdiagatik eta orduko ELAn izandako zatiketarekin ere bai, dirudienez, denak abertzale izanik ere, euren artean diferentziak baitzeuden, Trekuren arabera.

Oskarbi jarraitu zuen 70eko hamarkada gorabeheratsua igarota ere ohol-tzetan eta estudioetan, aldian-aldian kide gehiago edo gutxiagorekin, baina beti afizioa erronka berriz elikatzen: hango bira bat, hemengo kantaldi bat, disko berria... "Etapa asko izan ditugu, baina beti izan dugu helburu bat buruan, motibazio hori beharrezkoa da", dio Trekuk. Orain, larrialdi garaiotan, badute beste desafio itzel bat hamabigarren diskoarekin. ●

## 12. DISKOA

### BI HERRI KANTA, ZAZPI KANTA BERRI ETA LOINATZ ABESBATZA

1969an Urnietako salesiarren ikastetxean grabatu zuen lehen disko txikia Oskarbi, Bartzelonatik Herri Gogoak ekarritako soinu ekipoarekin. Hamar urte geroago kaleratu zuten binilo formatuan azken aldiz, eta tarte luze baten ondoren, 2000. urte inguruan jauzi teknologiko digital ikaragarria eman zuten. Hamabigarren diskoarekin lanean ari dira orain, berritasun bat izango duena gainera: Beasaingo Loinatz abesbatzarekin lau kanta grabatuko dituzte.

Lehendik ere eman izan dituzte kantaldiak abesbatzaz lagunduta, baina grabatzea beste kontu bat da Jose Luis Trekuren esanetan. Are gehiago osasun larrialdiarekin baldintzak zaildu direlako, "oso konplexua da, batez ere abesbatzarentzat, denek batera kantatzeko". Horrez

gain, Artzeren poemekin eta eurek propio sortutako letrekin hainbat abesti izango ditu diskoak, baita Oskarbiaren *Trebiñun dantzan* ere.

Hainbat kide batu zaizkie gainera, beste belaunaldi batekoak eta musika ikasketadunak. Horrek aukera ematen die batzuei zein besteei, nola teknikan hala sorkuntzan sakontzeko: "Partitura jakitea ondo dago, baina guk inprobisatu egiten dugu eta instrumentuekin ere hori da behar duguna. Baina bestetik, jende gazteak bizitza eman digu eta musikalki heldutasun bat".

Diskoa datorren udaberriko prest izatea espero dute eta horrek aitzakia paregabea emango die jarraitzeko, aurkezpen kontzertuen bidez, gustatzen zaiena egiten: areto eta plazak musikaz biziberritzea.



Oskarbi partaide berriak ere baditu gaur egun.



## LIBURUA

# 'Poltergeist' eta 'Rambo' artean



EREIN

## ARGIANTZA PELLO LIZARRALDE

EREIN, 2020

## IBAI ATUTXA ORDEÑANA

**P**oltergeist estreinatu ondoren, baina Rambo pantaila handietara iritsi baino lehenago, jubilatzeaz dagoen zinema-areto batzuen gerenteak road trip-ik mundutarrena abiatu du iraileko bero-sapa jasanezinean. Horratx, *Argiantza*, Pello Lizarralderen azken eleberria, Ereinek argitaratu duena, idazlearen argitaletxe kutunak. Makro-narrazioz gabeko mundutartasunaren izaera mikroskopiko horretan, hala ere, oso argi izendatu ezin dudana zerbaitek (zerbait deserosoak) lotu nau eleberrira hasi eta bukatu arte.

Gerenteak dio: "Nahita ere ezin izango dut ahaztu egiten ari naizen honen ondotik zerbait galduko dugula, nahiz eta ez dakidan oso garbi zer galduko dudana nik". Bada, iruditzen zait esal-

di horrek laburbiltzen duela, nolabait, eleberrira harrapatu nauen zera hori. Nola esan, iruditu zait, gerentearen adierazpenak kokatu nauela *Poltergeist* eta *Rambo*-ren artean.


*Poltergeist*-en bezala, galduta dagoela ez dakigun zerbaiten ehorzketaren testigu egiten gaitu eleberriak eta, bizkitartean, espektro eta mamuen zain utzi. *Rambo*-ren gisako soluzio testosteroniko bazookadun muskulatu hipermasikulinoaren iragarpenak, jarraian, gure mamuekin zer egin ez dakigula pentsatzen utzi nau. Eta hori guztia road-trip-ik mundutarrenean.

Egin, egiten dute bere lekua eleberrian zehar gaur egunera iritsi zaizkigun espektroetako batzuek: RRV izendapena baino lehenagoko Zarama; 78ko kons-

tituzioaren ondorengo, baina PSOEek lehenengoz irabazi baino lehenagoko Espainiako Estatuak; *googlemaps* eta *tomtom*-ak baino lehenagoko kotxe bidaiak; bideoa baino lehenagoko zinema; GAL baino lehenagoko ETA. Alta, zerbait galtzen ari bada, ez dakigu oso ondo zer. Hori bai, badakigu ari garela zerbait galtzen, horren testigu egiten baikaitu eleberriak.

Gure *Poltergeist*-i *Rambo*-rik bidali baino lehenagoko tarte horretan, nostalgiarik gabe begiratzen dio iragan hurbilari Lizarraldek. Ezin esan estetika narkotikoa dela *Argiantzak* ematen diguna. Edozer dela ere galdu genuena, merezi du galdetzeak zer ari garen galtzen orain, edo zer daukagun galtzeko bihar. ●





## MUSIKA

# Gogoak ez du makulurik behar



## TOMORROWMEN JON MANTECA'S ARMY

DDT

IKER BARANDIARAN

**I**nor aspertzen bada berak nahi due-lako da, dio aspaldiko esaera batek. Hori pentsatu zuten nire aitajaunak eta bere paseo-lagunak aspaldi auzoan bi mutil ikusi zituztenean elektrizitate-poste batera igotzen. Kontuz ibiltzeko ohartarazi zieten, gazteek ez zieten agureei jaramonik egin, jakina, eta halako batean deskarga batek horietako bat lurrera jaurti zuen erdi erreta. Onik irten zen mutila, baina hanka bat galduta. Egun horretan “jaio” zen Jon Mantea. Gerora ezaguna egin zen ikasleen manifestazioetan eta jai giroetan, bere makuluekin eta *hankabeltz* bizimoduarekin; hilik agertu zen arte.

Basauriko hardcore eta punk beterrano hauek ere ez dute aspertzeko inongo asmorik eta sorpresa asko dituzte be-

sapean; haize freskoa dakarte osagai bereizgarriak dituen ezohiko proposamenarekin. Esaterako, gaur egungo belaunaldiek ezagutu ez duten arrasatear ilustre horren (Mantea) figura omen-du nahi izan dute, bide batez hainbeste miresten duten AEBetako 80ko hamarkadako JFA (Jodi Foster's Army) hardcore-punk taldea gogora ekarriz. Eta nabaritzen da, bai, duten jakin-min eta irudimen aberatsaz gain, hastapenetako hardcore eta punk doinuak gustuko izatearekin bat ibilbidean oinarri dituztela. Izan ere, kideetako batzuk Hot Food, Control de Plagas eta bestelako taldeetan ibiliak dira aurretik.

2015ean *JMA* demoa kaleratu zuten surfa eta hardcore-punk garratza oheburuan dituztela ohartaraziz, baina ete-

naldi baten ostean, honako lan luzean gehiago findu dute soinua eta emaitza.

Bai, hardcorea eta punk iluna, amorratua, gustuko dituzte eta oso presente dago kantategian, baina baita ere beselako sonoritateak ere, horien artean benetako surfaren oihartzun barnera-koia eta dotorezia, Biafra handiaren eta Dead Kennedysen eromena duten pieza gordinak, eta erritmo eta abiadura al-daketak.

Skatea, beti skatea, aldarrikatuz, gaztelania eta ingelesa uztartuz, bi minutu eskaseko hamabost kanta erditu dituzte, amorratuak, ganberroak, kontrastedunak, biziak, ilunak, eta ohikotik aldentzen direnak. Horri gehitu diote 60ko hamarkadako The Chantays aitajaunen *Wayward nyle* klasikoa bere esentzian. ●



# Sei Kursaal Izarorentzat

XALBA RAMIREZ IRATXE ETXEANDIA

**N**ork ez du oroitzen Euskal Herria superpotentzia emozional gisa aldarrikatu zen egun (ejem) hura? Propaganda orotatik urrun, analfabeto emozionalen herria salatzen du Izarok, eta horri aurre egiteko, bizitza erdigunean jartzen du. Kultura eta hezkuntza zutarri nagusi. Eta azpimarratzearren, garrantzitsuena ez da kultura: bizitza baizik.

Hiru aldiz itzuli dizkiete zaleei sarreak eta azkenean –nola edo hala moldatuz– sei saio eskaini ditu Izarok Kursaa-lean. Sei. Gutxi balitz, erdi hutsik dagoen areto erraldoian.

*Paradise* kaleratu zuenetik harrapatu ninduela onartzen dut, baina sekula ez nuen ikusi zuzenean. Eta a ze kontzertu puska! Imajina nezakeena baina puskaz zoragarriagoa. Kantutegi luze-luzea duenez, kanta ederrenak aukeratu ditzake hasieratik amaierara. Une batzuk luzee-  
giak izateko arriskuarekin ordu eta erdi pasako kontzertu anitza eskaini dute Izarok eta bere bandak.

Bakarrrik ikusi litekeen banda horieta-

ko bat da –nahiz eta, barkatuko didazue, bakarrrik geratu ziren une hori izan zen kontzertuko eskasena–. Julen Barandiaran baxuan eta David Gorospe baterian, bermea baino zerbait gehiago da, Burun Danga eta Buffalo taldeetako (besteak beste) sekzio erritmikoa. Hitz gehiagorik ez.

Eta Iker Laurobaren gitarrak? Jotzen dituen partituren liburua ateratzen duenean gozatuko dute euskal nerabeek, Oasis bezalako taldeen kantak ikasi beharrean, harmonia eta dotoreziaz jositako konposaketekin.

Azkenik, Garazi Esnaolaren pianoak. Eta gitarrak, eta perkusioak eta ahotsak. Hor bai, hitzik ez. Ze pasio, ze opari. Diru bilketa abiatuko dugu, etorkizunean aterra nahi duen edozein proiektu finantzatzeko.

Bere hizkuntza trataera dela, bere limoi-  
en unibertsoa dela, jaso ditu batetik eta bestetik Izarok. Vendetta, Glaukoma edo Modus Operandi moduko talde batek inoiz jasoko ez dituenak, adibidez.

Baina, askoz jende gehiagok entzun

## IZARO

DONOSTIAKO KURSAALEAN

NOIZ: urriaren 25, 26, 27 eta 28an.

du euskara Izaroren ahotan \_\_\_\_\_ talde-  
etik baino. Hutsunea bete nahi duzun taldearekin.

Limoi-  
en unibertsoa baino proposa-  
men naifagorik gutxi egongo da, noski. Sakontasuna eduki dezake, baina lehen ikusian gehiago gogoratzen du azukrezko hodeiez egindako gaztelua. Baina nork ezartzen ditu naiftasuna erabiltzearen mugak? Gozotasunaren estetika baimentzen badu hitz egitea heriotzaz, zaintzaz, indarraz, gaixotasunez?


Eta garrantzitsuena: nor izateaz. Kursaa-lean ikusitako dantza, keinu eta txiste bakoitza ez zegoen “espektakuluaren” menpe. Nortasunean zintzotasuna da artista bati exijitu beharreko lehen urratsa, hainbeste plastikozko itxuren ondoan.

Azken kantarekin kolaboratzaile guztiak jarri ditu dantza barregarri bat egiten. Lotsa senti lezake inork. Baina lotsak ez du inoiz arrazoirik. Eta denok nahi dugu dantzatu. Groseko kaleetatik bat baino gehiago ikusi dugu saltoka etxeratzeko agindua dantzatzuz eta kantatzuz: “Bizitza osoa, bizitza osoa, bizitza osoa”. ●





## Gurutzegrama



### EZKER-ESKUIN:



- 1.** Atorra, bereziki gizonezkoek zeramatena, luzea eta zabala. | Izotza. **2.** Galdezka. | Pertza.  
**3.** Saldukeria egiten duena. **4.** Norbaitentzat, ohiko bikotekide ez den pertsona eta berarekin sexu harremanak dituena. **5.** Nekadura. | **Argazkiko ikuskizuna.**  
**6.** Zinema. | Zirkunferentziak marrazteko tresna. | Nihaur.  
**7.** Irarlearen eginkizun. | ... egon, ostatatu. **8.** Lekale. | Usaina hautematen duen zentzumena.

### GOITIK BEHERA:

- 1.** Astia, denbora librea. | Sabeleko orbain. **2.** obero, gehiegi. | Ene. **3.** Ukoak. **4.** Saiatzea.  
**4.** Du, haiei. | Lawrentzioaren ikur kinikoa. **5.** Musu. | Portu. **6.** Adura, arreta, kasu. **7.** Inola ez.  
**8.** 51 erromatar zenbakiz. | Senar. **9.** Suitzako ibaia. | Iritzi, aburu. **10.** Denbora, beta.  
**11.** Amerizioaren ikur kimikoa. **12.** Larru onduaren ifrentzua, bereziki altzearena.  
**13.** Santu. **14.** Nafarroako mendia.

## Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA  
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT  
AGERTUKO ZAIZU.



## Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN  
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK,  
BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Jipoia

Larru (Bizkaian)

Mantendu, eutsi

Norabait

Etekin, emaitza

Araudi-multzoa

Argibide

Pasatu, iragan

Muskulu

Herri handia

Barrea

Eseri


Buru egin

ZURRA


JARKI

## Sudokua

ERRAZA



ZAILA



### EBAZPENAK

SEKULA EZ DA BERANDU,  
BIDE TXARRA UZTEKO.

### ATSOITZITZA

JARKI  
JARRI  
IRIA  
HIRIA  
GIHAR  
IGARO  
FROGA  
FORUA  
ONURA  
INORA  
IRAU  
NARRU  
ZURRA

### ANAGRAMAK

ESKER-ESKUN: 1. BLUSA, JELA, 2. EAKA, PAZIA, 3. TRAIIDORE, 4. MATITALE, 5. NEKE, MASKARADA, 6. ZINE, KONPAS, NEU, 7. IRARLAN, OSTATUZ, 8. LEKARI, USAMENA, **GOITIK BEHERA:** 1. BETA, ZIL, 2. LAR, NIRE, 3. UKAMENAK, 4. SAIKERA, 5. DIE, LR, 6. POT, KAI, 7. JARAMON, 8. EZELAN, 9. LI, ESPOS, 10. AAR, KASA, 11. ASTI, 12. AM, 13. ANTE, 14. DEUN, 15. AUZA.

# Carlos Marqués-Macet

ZINEMA ZUZENDARIA



## SENTIKORTASUNA AGERIAN

“Zinema tresna zoragarria da mundua ikuspegi emozional batetik esploratu ahal izateko. Fikzioa formatu ederra da gogoetarako, gure historia berrirakurtzeko eta espiritu kritikoa lantzeko. *La mort de Guillem* proiektu gogorra bezain beharrezkoa izan da. Pertsonalki, faxismoaren aurkako leloa airatzetik harago, kasuaren nondik norakoak ulertzen lagundu dit. Familiak justizia aurkitzeko egindako borrokaren erretratu intimista sortzea lortu dugu. Arazo bakarra da zinema militantea barne-kontsumorako zinema dela, identitarioa”.

## “Egungo testuinguruan kokatu nahi izan dugu Guillem Agullóren kasua, memoria ariketa gisa”

Hogeita zazpi urte igaro dira 1993ko apirilean Montanejosko (Valentzia, Herrialde Katalanak) eskuin muturreko talde batek Guillem Agulló hil zuenetik, hemezortzi urteko gazte antifaxista, independentista eta antiarrazista. Carlos Marqués-Macetek (Bartzelona, 1983) zuzendu duen *La mort de Guillem* (Guillemen heriotza) filmak Agullóren familiaren borroka nekaezina ekarri du pantailara; dolua tartean, zigorgabetasunaren eta manipulazio mediatikoaren aurrean semearen oroimena aldarrikatzeko grinaren erakusle.

 LEIRE REGADAS  JORDI BORRÀS

**Ia hiru hamarkada igaro dira Guillem Agullóren heriotzetik. Zergatik erabaki duzue filma orain produzitzea eta zer-nolako harrera izan du?**

Inpunitatearen eta eskuin muturren gorakadaren aurkako *La lluita continua* (borrokak darrai) kanpainaren barruan kokatzen da filma. Egungo testuinguruan kokatu nahi izan dugu Guillem Agullóren kasua, memoria ariketa gisa. Urri hasieran À Punt, TV3 eta IB3 telebista kateetan estreinatu aurretik, pase batzuk egin genituen zinemaren. Filma amaitzean aretoan egiten zen isiltasunak izugarri hunkitu ninduen. Barrenak mugitzen dituen gaia da, gauza gogorak azaltzen dira. Baina ikusleek gogo handia zuten ikusteko, aspalditik zain zeuden eta oso harrera ona izan du.

**Zer nabarmendu nahi izan duzue filmaren bitartez?**

Historia kontatzeko ikuspuntu etikoa aurkitzea izan zen zailena. Azkenean, esparru intimotik politikora salto egitea erabaki genuen. Guille-

men erailketaren ondoren familiak bizitako aldaketa du ardatz eszenaratzek. Etxe hura beti zegoen jendez gainezka, mugimendua zegoen, bizitza zegoen, baina bat-batean isiltasuna etorri zen. Hutsune hura atzematea nahi nuen, seme bat galtzea zer izan daitekeen imajinatzen garrantzitsua zen isiltasun astun hura. Eraildako pertsona baten dolua ezin daiteke erraz eta bakean egin. Horixe bera islatu nahi izan dugu filmaren bitartez.

**Alfred Pérez-Fargas eta Roger Danès gidoilariak dokumentazio lan handia egin dute gurasoekin batera. Nola bizi izan du familiak prozesua?**

*La mort de Guillem* proiektu gogorra baina beharrezkoa izan da, ikerketa lan handia eta elkarriketa asko egin behar izan dugu senideek lehen pertsonen bizitako sentimendua transmititzeko. Oso harreman estua izan dugu familiarekin, ateak ireki dizkigute, baita Guillemen lagunek ere. Gurasoei ideia gustatu zitzaienten, eta nahiz eta hasieran kosta, geroz eta





"ZENTZU ETIKOAN FAMILIAK IRABAZI DU, GAUR EGUN EZIN DAITEKE ZALANTZAN JARRI KRIMEN POLITIKOA IZAN ZELA".

gehiago inplikatzeko joan ziren. Belen, ahizpa, oso inplikaturik egon da prozesuan. Familiaren alde geundela argi uztea oso garrantzitsua zen guretzat; ez genuen ezkutatzeko intentziorik, ezta ustezko objektibotasuna agertzeko nahimenik ere.

**"Guillem Agulló, ni oblit ni perdó" (Guillem Agullo, ez barkamenik ez ahanzturarik) denboran irauten duen goiburu antifaxista da. Zergatik uste duzu izan duela horrelako oihartzuna kasuak?**

Prozesu judizialak trantsizioan egin ziren akatsak agerian utzi zituen eta, horrenbestez, Guillem faxismoaren aurkako ikur bihurtu zen etorkizuneko belaunaldientzat. Goiburu antifaxista hura gorpuztu nahi izan dugu filmaren bitartez. Gurasoek gogor egin dute borrokan Guillemen memoria desitxuratu edo desager ez dadin. Haiek dioten bezala, prozesu judizialek haratago zentzu etikoa dago, eta hori bai irabazi dutela; gaur egun ezin daiteke zalantzan jarri krimen politikoa izan zela, Pedro Cuevas hiltzaileak Fronte Antisistema (FAS) talde naziarekin duen lotura ikusita.

**Valentziako telebistako 9. kateko artxiboko irudiak tartekatzen dituzue filmean. Zein rol izan zuen prentsak?**


Guillemen aurkako kriminalizazio gerra zikina eraman zuen aurrera prentsak eta taldeen arteko borroka izan zela dioten diskurtsoa indartu zuen, gertakariak guztiz despolitizatuz. Garai hartan telebistak estatus sozial handia zuen, albisteak ikusteak "egiaren" jakitun bihurtzen zintuen. Baina albisteak ikus-entzunezko beste genero bat besterik ez direla nabarmendu nahi izan dugu. *La mort de Guillem* bezalako fikziozko film bat gertatutakoarekiko zintzoago izan daiteke, garai horretako albistegia baino.

**Aktore batek uko egin zion Guillemen paperari, berdina gertatuko ote zitzaion beldur zelako. Filma grabatzen ari zineten bitartean, 'Guillem jódete' (Guillem izarra zaitez) dioten pintadak ere berriro agertu dira gurasoak bizi diren auzoan. Zein irakurketa egin daiteke gertakari horiei buruz?** Horrek guztiak zer pentsatua ematen

du, noski. Baina nire ustez, ezkerretik egin behar den gogoeta da zergatik langile klaseko mutil batzuk liluratu zituen diskurtso neonaziak. Marxalenes izaera herrikoia duen Valentziako auzoa da. Nola liteke langile klaseko pertsonek beraiekin zerikusirik ez duten ideia batzuk jarraitu eta defendatzea? Zergatik ematen diote botoa langile klaseko pertsonek Vox alderdiari? Zergatia aztertzea, hori da ezkerretik dugun erantzukizuna eskuin muturraren aurrean.

**Une gogorrek bizi izan ditu familiak; semearen erailketa, eskuin muturreko taldeen mehatxuak... Hainbeste urteren ostean, film honek nolabait lagunduko diela uste duzu?**

Horixe bera esan zigun aitak; filma ondo ateratzen baldin bazen, agian aurrera egiteko aukera izango zutela behingoz. Benetan, perspektiban ikusita, ez dakit hori posible ote den. Baina Belenek, arrebak, filmari esker gauza asko ulertzeko gai izan zela komentatu zigun, bera oso txikia baitzen guztia gertatu zenean. Nolabait, berarentzat behintzat bai, sendagaia izan da. ●



## Komuneko paperaren akzioen errekor historikoa burtsan, konfinamendu berriaren atarian

"Munduaren amaiera etorri behar bada, harrapa nazala ipurdiko zuloa ondo garbituta". Horrelako zerbait pentsatu bidet dute milaka kontsumitzailek, konfinamendu berria dekretatu aurretik masiboki erosi baitute komuneko papera berriro. Efektua nazioarteko burtsetan ere sumatu da, Scottex eta antzerako marken errekor historikoak erregistratu dituzte aste honetan eta enpresa horietako zuzendariak pozarren daude: sare sozialetan erakutsi dutenez, ekoizten duten produktuan bilduta momiarena egiten aritu dira azken administrazio kontseiluko bileran. Euskal Herriko hiru administrazioetako buruzagientzat ere ez da oharkabea pasa den fenomeno.

Iñigo Urkulluk, Maria Chivitek eta Jean-René Etchegarayk prentsaurreko bateratuan iragarri dute orain arte turismoan eta ostalaritzan inbertitutako diru publikoak osorik paper zuri bigunaren industriara bideratzea. "Funtsezkoa da herritarren ongizaterako", azpimarratu dute hiru ordezkariak. ●



### SAREAN ARRANTZATUA

Amurrio handiz itzulita



Kontuz Arabako arotzekin



MIKEL LANDAREN ANAIK ZUZENDUKO DU CASTINGA

## ETBko kale-inkestetan aktore izateko castinga abian

"Argi zegoen horrelako zerbait etorriko zela", "Arduraz jokatzeko ez badugu, badakigu zer dagoen", "Batzuk ez dira kontziente lagunekin trago bat hartzeak zein arrisku dakarren, denontzat", "Etxean sartuta egon behar badugu, ba halaxe, ez dago besterik"... ETBko kale-inkestetan agertu nahi duten herritarrek hainbat esaldi ikasi beharko dituzte, kazetaria hurbiltzen zaienean boteprontoan botatzeko. Berdin du galdera zein den, erantzunak zerrendako esaldi bat izan behar

du derrigor. Konbentzimenduz erantzun behar da, noski, modu sinesgarrian, eta ez kazetariak nahita aukeratu balitu bezala. Horretarako gogor ari dira egiten castingeko arduradunak. Aste honetan jipoi ederra eman diote herritar bati, "zein iritzi duzu ETBko zuzendari nagusiak euskaraz ez hitz egiteari buruz?" galderari "txarto" erantzuteagatik, eta ez aukeratzeagatik, esaterako, zerrendan ageri den "okerrago daude AEBetan eta ez dira kexatzen" moduko bat. ●



Jakoba Errekondoren liburu berria

# Etxeko landareak



Landareak etxeko poza dira. Ongi zaintzen dituenak bizitzaren edertasuna jasotzen du opari. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, landare bakoitza nola ureztatu, ongarri naturalak nola egin, haziz doan ahala nola birlandatu... maite dugun landare hori nola ugaltu ere ikasiko dugu. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honetan deskubrituko dituzu bakoitzaren jatorria, beharrak eta gustuak. Bizitzaren ederra loratu dadila!

EROSTEKO

**argia.eus/azoka**  
**9433 7 15 45**

 **ARGIA**  
www.argia.eus

**BIZI BARATZEA**  
www.bizibaratzea.eus



**25€**

Orri kop.: **248**

2021a urteurren borobil ugarirekin dator: 500 urte Noingo batailak, 150 urte Parisko Komunak, 100 urte Sobietar Batasunak M8 emakumearen egun izendatu zuela, 25 urte Itoiz urtegiko kableak moztu zitutela edo Hondarribiko alardean emakumeak lehen aldiz atera zirela, 20 urte Al Qaeda AEBetako Dorre Bikien aurkakoko atenatuarekin mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz, **egunero efemeride bat** eskainiko dizugu datorren urtean ere, burujabeak garenez, historia guk ere idatz dezagun.

**AZOKA.ARGIA.EUS**

**943 37 15 45**



4€ BIDLAKETA GASTUAK

**Eskuratu**



**ARGIA EGUTEGIA**